



ZUZENBIDE
FAKULTATEA
FACULTAD
DE DERECHO

GRADU AMAIERAKO LANA

**GENERO INDARKERIA: BIKTIMEN OHORE ETA
INTIMITATE ESKUBIDEEN BABES JURIDIKOA
AUZITEGIEN KEZKA BERRIA IZAN BEHARKO LITZATEKE?**

ZUZENBIDE GRADUA

2021/2022 IKASTURTEA

EGILEA: NAGORE BILBAO LERMA

ZUZENDARIA: JON ATXUTEGI GUTIERREZ



IKD³ Laborategia Berrikuntza Proiektuak 2021/2022

*Emakumeen kontrako indarkeria: prozedura judizialaren gabeziak eta biktimen babesa,
diziplinarteko ikustegitik (IKDi³ 21-30)*

AURKIBIDEA

LABURDURAK.....	2
I. SARRERA.....	3
II. GENERO INDARKERIAREN KONTZEPTUALIZAZIOA.....	6
III. INTIMITATE ETA OHORE ESKUBIDEEN HURBILKETA JURIDIKOA.....	11
1. Intimitate eskubidearen kontzeptua eta erregulazioa.....	11
2. Ohore eskubidearen kontzeptua eta erregulazioa.....	15
3. Intimitate eskubidea babes prozesalaren eta prozesutik kanpoko ikuspegitik.....	20
IV. GENERO INDARKERIAREN BIKTIMEN INTIMITATE ETA OHORE ESKUBIDEAK VS KOMUNIKABIDEAK.....	26
1. Intimitate eskubidea eta informazio askatasuna.....	26
1.1 Intimitate eskubidearen eta informazio askatasunaren arteko gatazka.....	27
1.2 Intimitate eskubidea prozesuko informazio askatasunaren muga gisa.....	35
1.3 Genero indarkeriaren ondorioz eraildako biktimen seme-alaben intimitate eskubidea.....	38
2. Ohore eskubidea eta informazio askatasuna.....	39
2.1 Ohore eskubidearen eta informazio askatasunaren arteko gatazka.....	39
2.2 Ohore eskubidea babesteko informazioa eskuratzeko mugak.....	40
3. Intimitate eta ohore eskubideetan bidegabeki sartzeagatik hartu daitezkeen neurriak.....	41
V. GENERO INDARKERIAREN BIKTIMEN INTIMITATE ESKUBIDEA SARE SOZIALETAN.....	44
VI. ONDORIOAK.....	49
VII. BIBLIOGRAFIA.....	53
VIII. ERANSKINAK.....	64

LABURDURAK

AGE	Auzitegi Gorenaren epaia
art.	artikulua
artk.	artikuluak
BOE	Estatuko Boletin Ofiziala
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
EK	Espainiako Konstituzioa
GEEH	Giza Eskubideen Europako Hitzarmena
GI	Genero Indarkeria
IKT	Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia
KA	Konstituzio Auzitegia
KAE	Konstituzio Auzitegiaren Epaia
koord.	Koordinatzailea
LO	Lege Organikoa
NBE	Nazio Batuen Erakundea
OJ	oinarri juridikoa
orr.	orrialdea
orrk.	orrialdeak
zk.	Zenbakiduna
zuz.	Zuzendaria
ZK	Zigor Kodea

I. SARRERA

Jakin badakigu, emakumeen aurkako indarkeria mundu mailako arazo nagusienetarikoa dela, eta historian zehar ezkutuan mantendu den arren, gaur egun, eremu pribatuan zein publikoan ematen da. Ez dugu ahaztu behar emakumeek, emakume izate hutsagatik sufritu duten eta sufritzen duten indarkeria mota dela.

Hala ere, hau ez da egungo arazoa, historian zehar genero femeninoarekiko diskriminatzailea den gizarte batean bizi izan baikara, zeinetan betidanik garrantzi handiagoa eman zaion gizonei eta maskulinoztat jotzen den jokaerari, emakumeen eta femeninoztat jotzen denari baino. Emakumeari tratu desberdin eta diskriminatzailea eman zaio, unean uneko gizartean indarrean zeuden estereotipo eta baloreen arabera. Izan ere, Nazio Batuen Erakundeak 1995eko IV. Mundu Konferentzian (Beijing) aitortu zuen bezala, emakumeen aurkako indarkeria oztopo bat da berdintasun, garapen eta bake helburuak lortzeko¹.

Egia da, gaur egun gizartea kontzienteagoa dela emakumeek bizi duten egoeraz. Horregatik, azken hamarkadetan genero-berdintasunerantz eman diren pausuei esker antzinako ordena maskulino patriarkala gaindituz joan da eta hori, historian zehar hainbat emakume taldeek egindako lan eta borrokari esker izan da. Bestalde, genero indarkeria gai konplexua eta zabala den heinean, ikerketa lan honen bidez, genero indarkeria pairatzen duten emakumeen intimitate eta ohore eskubideak nola babestu aztertuko da, bai zigor prozesuan zehar, bai prozesutik kanpo eta baita sare sozialetan ere. Izan ere, teknologiaren garapen azkar eta sare sozialen sorkuntzaren ondorioz, genero indarkeria kasuak larriki handitu dira, eta horrek EKko 18.1 artikuluan jasotzen diren, oinarrizko eskubideak gero eta gehiago urratzea eragin du, bereziki adingabe eta gazteen artean.

Hori dela eta, Emakundek, konkretuki, PORRES GARCÍAk eta ODRIOZOLA GURRUCHAGAk gauzatutako *Derecho a la intimidad de las víctimas de delitos de*

1 NBE: *Beijing-i buruzko Laugarren Mundu Konferentziaren txostena*, 1995ko irailaren 4tik 15era, 51.orr.

*violencia de género. Derecho al anonimato de las víctimas*² txostenaren azterketa izango da ikerketa lan honen abiapuntua. Lana intimitate eta ohore eskubideen garrantzi konstituzionalari buruzko azalpen teoriko-juridikoarekin hasiko den arren, aurrerago komunikabideek eta sare sozialek arlo honetan duten trataeran sakonduko da.

Lanaren mamian murgildu aurretik, interesgarri litzateke gaur egun, genero indarkeriaren biktimen ohore eta intimitate eskubideen babes gabeziaz jabetzeko egiazko adibide baten azterketa laburra egitea. Izan ere, ezin uka daiteke, espainiar egunkariak³, indarkeria matxistaren ondorioz eraildako emakumeei buruzko berriak ematerako orduan, biktimak identifikatzeko joera dutela, haien izen-abizenak osorik aipatuz, edo haiek identifikatzeko erraztasunak emanez. Horren adierazpide da estatu mailan, ezagunak diren bi egunkariak (El Mundo eta El País) 2008-2012 urteen artean genero indarkeriaren biktimen berriei buruzko informazioari eman zioten trataera.

Egunkari hauek genero indarkerian espezializatzeko baliabideak eskaini beharko litziekete kazetariei. Hala ere, egunkarien identifikazio taulan (1. Eranskina) ikus daitekeenez, hiru egunkariak (El Mundo, El País eta Huelva Información) aztertu zituzten 282 kasuetatik, 198 kasuetan, zera, kasuen %70etan, biktima erraz identifika zitekeen trataera eman zioten informazioari. Horrek, biktimaren intimitate eta irudirako eskubideen urraketa ekarri ez ezik, haren familiaren intimitate eta irudi eskubideen aurka ere badoa.

Gauzak horrela, oinarrizko eskubideen urraketa larri baten aurrean gaudela kontuan izanda, Emakundek, bere txostenean argi adierazi du ezinbestekoa dela komunikabideen laguntzarekin batera dekalogo bat sortzea, genero indarkeria kasuen informazioari zilegizko tratamendua emateko. Izan ere, komunikabideek, genero indarkeria kasuei buruzko informazioa herritarrei helarazteko eskubidea duten arren, horrek ez die edonola egiteko eskubiderik ematen. Hortaz, komunikabideek genero

2 PORRES GARCÍA, Izaskun eta beste batzuk: *Derecho a la intimidad de las víctimas de delitos de violencia de género. Derecho al anonimato de las víctimas*, 2018, 11-15 orrk.

3 TRIANO LÓPEZ, Patricia eta beste autore batzuk: *Análisis del tratamiento por parte de la prensa española de las noticias sobre mujeres asesinadas por sus (ex) parejas sentimentales*, E-aesla, 2016, 169-178. orrk.

indarkeria kasuei buruz zabaldu ohi duten gehiegizko informazioa da genero indarkeriaren biktimen intimitate eta ohore eskubideen urrapenen zioa.

Beraz, lan honen helburuetako bat, juridikoki indarkeria matxista sufritzen duten eta honen ondorioz eraildako emakumeen nortasunari buruzko identifikazio-daturik ez zabaltzeko eskubidearen garrantzia ezagutaraztea da. Baita, biktima den emakumearen senideen zuzeneko nahiz zeharkako identifikazio-daturik ez emateko garrantzia nabarmentzea ere. Horretarako, 4/2015eko Delituaren Biktimaren Estatutua izango da lanaren funtsetako bat, zeinetan biktimen identitatea bereziki babesteko adierazpena jasotzen den, eraildako emakumeen kargu dauden adingabeak ere biktimatzat hartuz.

Aipatutakoaz gain, gaur egun, komunikabideetan ez ezik, sare sozialen bidez ere, genero indarkeriaren biktimen ohore eta intimitate eskubideen urraketa maiz ematen da. Beraz, azken urteetan, Internetek eta bereziki, sare sozialek hartu duten nagusitasuna kontuan izanik, sare sozialetan genero indarkeria kasuen eta biktimen intimitate eskubidearen eremuan eman daitekeen urraketari buruzko ikerketa laburra egingo da.

Hurrengo orrialdeetan beraz, genero indarkeriari buruzko azterketan, eta bereziki genero indarkeriaren biktimen intimitate eta ohore eskubideen ikerkuntzan murgilduko gara. Horretarako, arlo honetako araudiaren eta jurisprudentziaren azterketa egiteaz gain, mundu juridikoko profesionalen iritziez ere baliatuko gara, biktimen intimitate eta ohore eskubideen eta komunikabideen informazio askatasunaren arteko oreka lortu, eta delituen biktimen intimitate eta ohorea babestua geratu dadin. Laburki, proposatutako helburuari erantzun arrazoitua emateko, interesgarria litzateke bereziki, gaiaren alderdi hauek aztertu eta garatzea:

1. Genero indarkeriaren biktimak nortzuk diren adierazi.
2. Intimitate eskubideari ematen zaion babesa bai prozesalki bai prozesutik at.
3. Gatazkan dauden eskubideak identifikatu eta arrazoitutako irtenbidea eman.
4. Gatazkan dauden eskubideen nagusitasuna nabarmentzeko irizpideak zeintzuk diren zehaztu.
5. Sare sozialen eragina biktimaren intimitate eskubidean.

II. GENERO INDARKERIAREN KONTZEPTUALIZAZIOA

Jakin badakigu, genero-desberdinkeria eta desberdinkeria horri lotutako diskriminazioa direla gaur egun, genero indarkeriaren jatorria⁴. Hau esanda, komenigarria litzateke genero indarkeriaren kontzeptua aztertzen hasi aurretik, sexua eta genero kontzeptuaren arteko bereizketa egitea. Sexua, gizakia, gizon edo emakume gisa definitzen duten ezaugarri biologikoak dira⁵. Generoa aldiz, NBE Emakumeak erakundearen arabera⁶, ume baten sexua ezagutzen den unetik eraikitzen da eta pertsonen sexuaren arabera esleitutako ezaugarri soziokulturalen multzoak adierazten du⁷.

Hori dela eta, genero-desberdinkeriak emakume eta gizonen arteko desberdinkeria ekonomiko, politiko eta sozialak eragin ditu, gizonaren autoritatea nagusitzen dutenak⁸. Arazoa da, gizarteak onartu eta normalizatu egin dituela genero indarkeriatzat hartu daitezkeen hainbat jokabide, eta ez da ikusarazten genero indarkeria, emakumea kontrolatzeko eta menderatzeko tresna izan daitekeela.

Gauzak horrela, genero indarkeriaren kontzeptua adierazteko, abenduaren 28ko 1/2004ko Genero Indarkeriaren Aurkako Babes Osoa emateko neurriei buruzko Lege Organikoaren⁹ objektua aztertuko dugu, bere 1. artikuluan jasota dagoena. Ildo beretik, 1/2004ko Lege Organikoaren ondorioetarako, genero indarkeria, gizonen emakumeen aurka erabiltzen duten indarkeria mota da, eta honek barne hartzen ditu, emakumearen aurkako indarkeria fisiko eta psikologiko oro. Hala ere, genero indarkeriaz hitz egiteko beharrezkoa da emakumearen eta gizonaren artean nolabaiteko harreman afektiboa

4 EMAKUNDE: *Berdintasunari eta indarkeriari buruzko oinarritzko kontzeptuak*, Instituto Vasco de la Mujer, 2020, 6.orr.

5 EMAKUNDE: *Berdintasunari eta indarkeriari...*, zit., 6.orr.

6 NBE EMAKUMEAK, TREBAKUNTZA-ZENTROA: *Gender Mainstreaming. Concepts and definitions; Generoa, 2011-2017*.

7 SANDOVAL HURTADO, Carmen Adelaida: *Violencia de Género. Visión desde el ordenamiento jurídico español y boliviano*, Valentzia, 2011, 33. orr.

8 LORENTE ACOSTA, Miguel: *Mi marido me pega lo normal. Agresión a la mujer: realidades y mitos*, Bartzelona, 2001, 40.orr.

9 Espainia. Abenduaren 28ko 1/2004ko Lege Organikoa, Genero Indarkeriaren Aurkako Babes Osoa emateko neurriei buruzkoa. Aurrerantzean 1/2004ko Lege Organikoa.

egotea, bizikidetza egon ez arren. Indarkeria mota hau beraz, gizonen emakumeekiko duten botere-harremanen adierazpen larrienetarikoa da¹⁰.

Hau esanda, ondoriozta daiteke, genero indarkeria, ez dela esparru pribatuan bakarrik ematen den indarkeria mota, gizartean dagoen eta aipatu den genero-desberdinkerian baitago zioa. Gainera ondo adierazi behar da, emakumeek, emakume izate hutsagatik sufritzen duten indarkeria mota dela, euren erasotzaileek gutxieneko eskubideak ez dituztela barneratu baitute¹¹.

10 BERDINTASUN MINISTERIOA: *Guía de los derecho de las mujeres víctimas de violencia de género. Delegación del Gobierno contra la Violencia de Género*, 2021, 6.orr.

11 Genero indarkeriaren kausei buruz jarduten dugunean, ezin uka daiteke, genero indarkeriaren kontzeptua konplexua dela, eta ezin dela zehazki eta sinpleki honen iturburua edo erantzuna aurkitu, hots, indibidualki hitz eginez, ez daude pisuzko arrazoiak, emakume bat tratatu txarrak jasan dituela justifikatzeko. Hala ere, IKD I³ “Emakumeen kontrako Indarkeria: Prozedura Judizialaren Gabeziak eta Biktimaren Babesa, Diziplinarteko ikuspegitik” izeneko proiektuaren ondorioz elkarbanatu den informaziotik (Maialen Hernandezek emanda), esan daiteke, historiak genero indarkeriaren sorrerari buruzko erantzun argia eman diezagukeela.

Lanaren hasieratik aipatu bezala, emakumeak ez du indarkeria bere sexuaren ezaugarri fisikoengatik jasaten, baizik eta bere generoari lotutako estereotipo sozial eta kulturalengatik. Hauek gizonen nagusitasun ideologikoa osatzen dute, sistema patriarkala osatuz. Era berean, zientzia antropologikoa (PERIS CERVERA, Rosa Maria: *Patriarcado, ¿Organización ya superada? ¿Origen de la violencia machista?* 2009, 18-20 orrk.) adierazten duena oinarri hartuz, patriarkatua antolaketa-sistema bat da, zeinetan boterea gizonen esku dagoen emakumea menderatu eta kalte egiteko asmoz (LOUSADA AROCHENA, José Fernando: *El derecho fundamental a vivir sin violencia de género*, Granada, 2015, 32-33 orrk.). Beste era batera esanda, generoa, sexua ez bezala, feminotasunaren eta maskulinitasunaren eraikuntza soziala da, eta gizarteak berak legitimatzen die gizonen emakumeen gaineko boterea eta beraz menderatzea izateko, ematen zaizkien eskubide eta pribilegioen ondorioz (CEBALLOS HERNÁNDEZ, Leonor: Erreseina, “Miguel Lorente Acosta. Mi marido me pega lo normal. Agresión a la mujer: realidades y mitos”, Clepsydra, 2001, 165 orr.).

Bestalde, sistema patriarkalak ezaugarri batzuk egotzen dizkio maskulinitasunari, hala nola, indarra, independentzia edo segurtasuna, eta feminotasunari osteratuta, ahultasuna, mendetasuna, edo segurtasun eza besteak beste. Beraz, ideia honetatik abiatuz, ikus daiteke rolen banaketa estereotipatua ezartzen dela emakumeen eta gizonen artean eta beraz, gizonen arlo publikoan jardutea egotzen zaien bitartean emakumeen ordea, arlo pribatuan jardutea egokitzen zaiela. Hari beretik, funtzio banaketa hau, gizonen emakumeekiko duten nagusitasunari lotuta dago.

Beraz, genero indarkeriaren zioa, sozialki, kulturalki eta ekonomiaren ikuspegitik, gizartean dagoen desberdintasun ekonomiko eta generikoan dago, baita sistema juridiko-politikoan ere. Hau da, gizarte askotan oraindik indarrean dagoen balio patriarkalaren eskala litzateke, emakumeen aurka erabiltzen den genero indarkeriaren iturburua. Ildo beretik, ESCUDEROK, (ESCUDERO MORATALLA, Jose Francisco: *Violencia doméstica. Factores de vulnerabilidad. Elementos socio-culturales y económicos*, en: MINISTERIO DE JUSTICIA, (ed.). Estudios sobre violencia familiar y agresiones sexuales. Madrid: Imprime Solane e hijos A. G., S. A., 2.000, 133 – 134. orr.) argi adierazten du, ohitura sozialak eta arau erlijiosoak erabili direla emakumearen mendekotasun ia absolutua lortzeko. Horrek aditzera eman dezake, gizonaren nagusitasuna gailentzen diren gizarteetan, aukera gehiago dagoela emakumeen kontrako indarkeria kasuak emateko. Ondorioz, esan daiteke, askotan arau sozialak direla arazoari garrantzia kentzen diotenak eta beraz, gizonaren jokabide bortitzak justifikatzen dutenak.

Aurreko guztia laburbilduz, ondoriozta dezakegu genero-desberdinkeria dela genero indarkeriaren kausa nagusia, hots, emakume eta gizonaren arteko genero-harreman ezberdina. Hari beretik, emakumeen aurkako indarkeria estrukturala da, eta emakumeekiko gizonaren nagusitasuna gailentzen den gizarteetan eman ohi da, zeinetan sexuaren arabera, ezaugarri eta rol ezberdinak esleitzen

Bestalde, 1/2004ko Lege Organikoa bakarrik aipatu arren, genero indarkeriaren biktimaren kontzeptua, hainbat arauditan jasota dago, eta horien artean, 4/2015eko apirilaren 27ko Lege Organikoa Biktimaren Estatutuari dagokiona¹², edo nazioarte mailan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012ko urriaren 25eko 2012/29/EB Zuzentaraua daude¹³.

Zehatzago esanda, 4/2015eko Lege Organikoaren 2. artikulua jarraikiz, zuzenean nahiz zeharka Espainiar estatuan gauzatutako delitu baten ondorioak jasaten dituen pertsona orok, biktimaren izaera bereganatuko du. Hori dela eta, lege honek biktimatzat hartzen ditu bai delitua jasan duen pertsona bera (biktima zuzena) bai delitu baten ondorioz erailda izan denaren familia (zeharkako biktima). Beraz, zuzenean genero indarkeria terminoa erabili ez arren, lege honek genero indarkeria sufritzen ari den emakumea eta haren senideak (erailketa kasuetan) barne hartzen ditu¹⁴.

zaizkien emakume eta gizonei.

Horregatik beharrezkoa da pixkanaka bada ere, berdintasunerantz pausuk ematea eta emakumeak, garrantzitsuak diren kargu politiko, sozial eta ekonomikoetara iristeko borroka egitea, izan ere, emakumeekiko diskriminazioa ez da naturala, eta hori aldatu daiteke (LAGARDE, Marcela eta beste batzuk: *Feminismo, género e igualdad.*, 2011, 270.orr.). Azkenik jakin, genero indarkeria izaera historikoa eta unibertsala izan arren, ez zela 90eko hamarkadara arte nazioarteko agenda politikoan sartu, zeinetan, emakumeen giza eskubideen urraketa, diskriminazio modu bat, eta garapenerako oztopo bat direla onartzen den (VICENTE, Susana: *Una aproximación a la violencia de género. Derecho a una vida libre sin violencia*, 2009, 21. orr.). Ildo beretik, IKD Proiektuaren ondorioz lortutako informaziotik ondoriozta daitekeen bezala (Maialen Hernandez), bi dira historikoki genero indarkeriaren aurkako borroka adierazten dutenak, 1993ko Giza Eskubideen Konferentzia eta 1994ko Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatzeari buruzko Adierazpena.

- 12 Espainia. Apirilaren 27ko 4/2015ko Lege Organikoa, Biktimaren Estatutuari dagokiona (2. art.). Aurrerantzean 4/2015eko Lege Organikoa.
- 13 Europar Batasuna. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012ko urriaren 25eko 2012/29/EB Zuzentaraua, Delituen Biktimen Eskubideei, Laguntzari eta Babesari buruzko gutxieneko arauak ezartzen dituena. Zuzentaraua honek, Kontseiluaren 2001/220/JAI esparru erabakia ordezkatzeko du, Biktimaren Estatutuari dagokiona.
- 14 1/2004ko LOak, genero indarkeriaren biktimatzat hartzen ditu, adingabeak diren emakumearen seme-alabak, edo haren tutoretzapean edo zaintzapean daudenak. Adindunak diren seme-alabak ordea, ez ditu biktimatzat hartzen, salbu emakumearen erailketa edo desagertze kasuetan. Gerora, 4/2015eko LOk biktimaren kontzeptua, bere 2. artikuluan jaso arren, emakumearen senideak (adindunak diren biktimaren seme-alabak barne), genero indarkeriaren zeharkako biktimatzat bakarrik hartzen ditu emakumea desagertu edo erailda izan den kasuetan. Zer gertatzen da beraz, egunero genero indarkeria sufritzen duten emakumeen kasuetan? Haren seme-alabak ez al dira genero indarkeriaren biktimak ere? Ulertezina da, indarkeria eta menderatze testuinguru batean integratuta dauden zuzeneko biktimen senideak, genero indarkeriaren biktimatzat ez hartzea, bereziki zaurgarriak diren seme-alaba adingabeez jarduten dugunean. Izan ere, Auzitegi Goreneko ekainaren 22ko 514/2021 eta urriaren 28ko 663/2015 epaiek adierazten duten bezala: “*la violencia habitual equivale a la creación de un estado permanente de violencia que afecta a la estructura básica de la convivencia desde el respeto a la dignidad de las personas*”. Beraz, adingabeak diren biktimaren seme-alabak, gertaeren lekuko izateaz gain, indarkeria nagusi den testuinguru batean bizi dira, indarkeria psikologiko eta zenbaitetan fisikoaren biktimak izanik. Are gehiago, egoera hauetan, indarkeria, adindunen artean ohikoa den egoeratzat hartzen dute, hori dela eta ezin uka daiteke, 4/2015eko Lege Organikoa

Bestalde, biktimaren kontzeptuari lotuta, genero indarkeria kasuetan, biktimaren eta haren familia-kideen intimitate eskubidea babestuta gera dadin, lege bereko 19. artikulua¹⁵, argi nabarmentzen du eragile publikoen esku dagoela intimitate eskubidearen babes osoa eta egokia bermatzea. Gainera, adingabeak dauden kasuetan, legeak Fiskaltzaren esku uzten du babes-eskubidea betetzen delaren zaintza.

4/2015eko Lege Organikoaz gain, nazioarte mailan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012ko urriaren 25eko 2012/29/EB Zuzentaraua azpimarratu daiteke. Honek, 4/2015eko Lege Organikoa bezala, biktimatzat hartzen ditu bai zuzenean delituaren ondorioak jasan dituen pertsona bai delituaren ondorioz zeharka kaltetuak izan diren biktimaren familia. Hori dela eta, 2012/29/EB Zuzentaruaren 2. artikulua¹⁶ biktimatzat hartzen dituen pertsonen intimitatea babesteko eskubidea aitortzen die, biktimak eta gure kasuan, genero indarkeriaren biktimak diren heinean, babestu beharreko eskubide garrantzitsuenetarikoa izanik. Era berean, lanean zehar ikusiko dugun bezala, intimitate eskubidea, ikuspegi bikoitzetik aztertu daiteke, hots, prozesalki eta prozesutik kanpo.

Azkenik, EAEn emakumeen aurkako indarkeriaren arloan dagoen legeriari dagokionez, otsailaren 18ko 4/2005 Legea¹⁷, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzkoa nabarmendu daiteke. Alde batetik, emakume eta gizonen berdintasunari buruzko 4/2005eko Lege honek, bere VII. Kapituluan, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko araudia jasotzen du; konkretuki, bere 50. artikuluan modu argi eta zehatzean adierazten du emakumeen aurkako indarkeriatzat zer jotzen duten.

Gauzak horrela, lege honen ondoreetarako, sexuaren ziozko edozein ekintza bortitz joko da emakumeen aurkako indarkeriatzat, baldin eta ekintza horrek emakumeari kalte fisiko, sexual, psikologikoa edo sufrimendua ekartzen badio edo ekar

jasotzen duen biktimaren izaera zabaldu beharra dagoela, genero indarkeria pairatzen duten emakumearen senideak zeharkako biktimatzat hartuz.

15 4/2015eko Lege Organikoa (19. art.).

16 Europar Batasuna. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012ko urriaren 25eko 2012/29/EB Zuzentaraua (2. art.).

17 Euskal Autonomia Erkidegoa. Otsailaren 18ko 4/2005eko Legea, Emakumeen eta Gizonen berdintasunari buruzkoa. Gerora, otsailaren 15ko 3/2012ko Legeak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunari buruzko eta Emakunde- Emakumearen Euskal Erakundea sortzeko Legea, aldatzeko dena.

badieziaioke. Era berean, jokaera horien artean sartuko dira emakumea ekintza horiek egitearekin mehatxatzea, hertsapenak egitea edo askatasuna arbitrarioki kentzea, bizitza publikoan edo pribatuan. Bestalde, 4/2005eko Legeaz gain, EAEn genero indarkeria pairatu duten biktimentzat 29/2011ko martxoaren 1eko Dekretua litzateke aipagarri, genero indarkeriaren biktimei laguntzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean dauden koordinazio mekanismoei buruzkoa, zeinetan bere 1.2 artikuluan genero indarkeriaren kontzeptua jasotzen duen, 4/2005 Legeak jasotzen duen berdina.

Amai dezagun esanez bai nazioarte mailan bai estatu eta Euskal Autonomia Erkidego mailan, genero indarkeriaren terminoa¹⁸ antzekoa den ikuspuntutik definitu eta aztertzen dela, genero indarkeriaren biktimak nortzuk diren argi adieraziz. Beraz, biktimak nortzuk diren zehaztu ostean, garrantzitsua da, 29/2011ko martxoaren 1eko Dekretuak jasotzen duen bezala genero-indarkeriaren biktimak diren edo izan diren emakumeentzat zerbitzuak, berariazko prestazioak, laguntzak edo onura bereziak aurreikustea, horien bidez biktimek indarkeriazko harremanari amaiera eman, eta beren bizi-proiektua berreskura dezaten. Ildo beretik, prestazio horietako batzuk zenbait legetan zuzenean eskubidetzat hartzen dira; hala nola, azertu dugun Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean, edo Genero Indarkeriaren Aurkako Babes Osorako Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Legean besteak beste¹⁹.

18 Genero indarkeriak hainbat kontzeptu barnebildu eta erlazionatzen ditu. Hori dela eta, askotan bai komunikabideetan bai eguneroko bizitzan, egoera zehatz bati erreferentzia egiteko termino ezegokiak erabili daitezke. Ondorioz, lanean zehar erabili eta erabiliko diren terminoei definizio eta azalpen egoki bat eman behar zaie (2. Eranskina).

19 Euskal Autonomia Erkidegoa. 29/2011ko martxoaren 1eko Dekretua, genero indarkeriaren biktimei laguntzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean dauden koordinazio mekanismoei buruzkoa.

III. INTIMITATE ETA OHORE ESKUBIDEEN HURBILKETA JURIDIKOA

1. Intimitate eskubidearen kontzeptua eta erregulazioa

Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidearen aitortza 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak egiten badu ere²⁰, Espainiar ordenamenduan, lehen aldiz, 1978ko Espainiar Konstituzioko 18.1 artikuluan jaso zen. Ildo beretik, intimitate eskubidea Zuzenbide zibilaren ikuspuntutik aztertu arren, zuzenbidearen eremu osoan nortasunari lotutako oinarrizko eskubidetzat hartzen da ohorerako eta norberaren irudirako eskubidearekin batera²¹.

Gerora, 1982ko Ohore, Intimitate eta Norberaren irudiaren babes zibilari buruzko Lege Organikoan (1/1982 LO, aurrerantzean) tratamendu unitarioa eman arren, ondoren aztertuko dugun bezala, Konstituzio Auzitegiaren ekainaren 30eko 127/2003ko epaiak, eskubide autonomotzat²² hartu ditu (eduki propio eta zehatza izanik), nahiz eta elkarren artean harreman estua dutela adierazi²³. Ildo beretik, Konstituzio Auzitegiak adierazi bezala, intimitaterako eskubidea (ohore eta norberaren eskubideekin batera), bizitza pribatua babesten duten nortasunari lotutako eskubidea da; hain zuzen ere, norberaren eta familiaren intimitaterako espazioa babesten duena²⁴.

20 Nazio Batuak. 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaleko 12. art.

21 Espainia. 1978ko Espainiar Konstituzioko 18. art.

22 Konstituzio Auzitegiaren ekainaren 30eko 12/2003ko epaiak, eskubide autonomotzat jo arren, Doktrinan gai gatazkatsua izan da. Hots, EKko 18.1 artikuluan jasotzen diren eskubideak, berezko substantibotasuna edo eskubideok barnebiltzen dituen kontzepturen bat existitzen den eztabaidatu da. ÁLVAREZ CONDEren ustez, ez dago doktrinalki iritzi bateraturik; zera, badira alde batetik, intimitate eskubidea juridikoki babestutako ondasuna dela adierazten dutenak, ohorea eta irudirako eskubidea, intimitate eskubidetik garatutako eskubideak direla adieraziz. Bestalde, badira, ohore eskubidea, intimitate eskubidea ez bezala, substantibotasun propioa duela adierazten dutenak, intimitatea, norberaren irudirako eskubidearen agerpentzat hartzen baitute.

23 KAKo 127/2003 ekainaren 30eko epaia (6. OJ): “[...] *Los derechos al honor, a la intimidad personal y a la propia imagen, reconocidos en el art. 18.1 CE, a pesar de su estrecha relación en tanto que derechos de la personalidad, derivados de la dignidad humana y dirigidos a la protección del patrimonio moral de las personas son, no obstante, derechos autónomos, que tienen un contenido propio y específico [...]*”.

24 KAKo 170/1987 urriaren 30eko epaia (4. OJ): “*Los derechos a la intimidad personal y a la propia imagen, garantizados por el art.18.1 de la Constitución, forman parte de los bienes de la personalidad que pertenecen al ámbito de la vida privada. Salvaguardan estos derechos un espacio de intimidad personal y familiar que queda sustraído a intromisiones extrañas [...]*”.

Gauzak horrela, intimitate eskubidearen kontzeptua bai doktrinaren bai jurisprudenziaren ikuspuntutik aztertzea komeni da. Era berean, norberaren eta familiaren intimitate eskubideari buruzko definizio zehatz ezaren aurrean, asko izan dira intimitatea kontzeptualizatzeko doktrinalki²⁵ egin diren ahaleginak²⁶. Esaterako, LACRUZren hitzetan²⁷, intimitate eskubideak, norbanakoari eremu eskusibo eta baztertzaila aitortzen dio, baita berezkoa duen jarduera eremua ere, hirugarrenei sarbidea debekatzeko eskubidea izanik. Horrek adierazten du, norbanakoak esparru propioa eta beraz, pribatua duela gainerakoek ezagutzaren aurrean, gutxieneko giza kalitatea mantentzeko beharrezkoa dena. Horrela aditzera ematen du Konstituzio Auzitegiak ere²⁸. DE CASTROK²⁹ berriz, intimitatea, norbanakoaren esentzia eta ezaugarri garrantzitsuenak babesteko pertsona orori ematen zaion boterea litzatekeela adierazten du.

DIEZ-PICAZOK³⁰ ordea, intimitaterako eskubidea, funtsean, eremu propio eta erreserbatuaren barruan dauden egitateak besteren ezagutzatik kanpo uzteko ahalmena dela adierazten du. Hala ere, arazo nagusia, eremu pribatuaren irismen³¹ zehatza zein

25 REBOLLO DELGADO, Lucrecio: *El derecho fundamental de la intimidad*, 2. argitalpena, Dykinson, Madril, 2005, 76.orr.: Intimitate eskubidea definitzeko egin diren doktrina ahaleginen artean, badira eskubidearen kontzeptu objektibo baten ulermenaren aldeko autoreak. Ikuspegi objektiboaren aldeko autoreak, hala nola, Thomas Cooley edo De Cupis, intimitate eskubidea, pertsona orok bakean, lasai eta bakarrik uzteko duen eskubidetzat jotzen dute. De Cupisek esaterako honela definitzen du intimitate eskubidea: “[...] *aquél modo de ser de la persona que consiste en la exclusión del conocimiento ajeno de cuanto hace referencia a la propia persona o también como la necesidad consistente en la exigencia de aislamiento moral, de no comunicación externa de cuanto concierne a la persona individual*”.

26 GARCÍA SAN MIGUEL, Luis: *Estudios sobre el derecho a la intimidad*. Tecnos, Madril, 1992, 18. orr. Ikuspegi subjektiboaren aldeko autoreak ordea, intimitate eskubidearen funtsa informazio-autodeterminazioan dagoela adierazten dute, hau da, norberaren hainbat alderdik besteen ezagutzatik at uzteko eskubidean. Aipatutakoaz gain, sekreturako eskubidea litzateke, alegia, besteek zer garen edo zer egiten dugun ez jakiteko eskubidea.

27 LACRUZ BERDEJO, José Luis eta beste batzuk: *Elementos del derecho civil. Tomo I: Parte general. Vol.2: Personas*, Dykinson, Madril, 2017, 90. orr.

28 KAKO 231/1988 abenduaren 2ko epaia (3. OJ): “[...] *Los derechos a la imagen y a la intimidad personal y familiar reconocidos en el art. 18 de la C.E. aparecen como derechos fundamentales estrictamente vinculados a la propia personalidad, derivados sin duda de la «dignidad de la persona», que reconoce el art. 10 de la C.E., y que implican la existencia de un ámbito propio y reservado frente a la acción y conocimiento de los demás, necesario - según las pautas de nuestra cultura- para mantener una calidad mínima de la vida humana [...]*”.

29 CALATRAVA CODES, José María: *Comentario de la Sentencia del Tribunal Europeo de Derechos Humanos en el Caso Von Hannover contra Alemania: ¿Una esperanza para la intimidad de los famosos*, Asamblea: revista parlamentaria de la Asamblea de Madrid, 2010, 262. orr.

30 DÍEZ-PICAZO Luis María: *Sistema de derechos fundamentales*, Tirant to Blanch, Valentzia, 2021, 284.orr.

31 REBOLLO DELGADO, Lucrecio: *El derecho fundamental...* zit. 50.orr. eta hurrengoak: Honek bizitza pribatua eta intimitatearen arteko bereizketa egiten du. Bizitza pribatuari dagokionez,

den zehaztea da; horretarako 1/1982 LOak zenbait irizipide zehazten ditu³². Hori gutxi balitz, CABEZUELO ARENASek argi azaltzen du intimitatea definitzeko eragozpenak daudela, izan ere, denboran eta espazioan aldakorrek diren faktore soziokulturalekin lotura duen kontzeptua dela adierazten du³³.

Bestalde, Konstituzio Auzitegiaren ekainaren 30eko 127/2003ko epaia³⁴ erabiliko dugu, jurisprudenzialki intimitate eskubidearen kontzeptua eta bere autonomia aztertzeko. Epaia honen 6. oinarri juridikoa kontuan hartuz gero, honek argi adierazten du, EKko 18.1 artikulua jasotzen dituen oinarriko eskubideen artean erlazioa egon arren, eskubide autonomoak direla. Beraz, eskubide bakoitzak eduki zehatz eta propioaz gozatuko du: *“los derechos al honor, a la intimidad personal y a la propia imagen, reconocidos en el art. 18.1 CE, a pesar de su estrecha relación en tanto que derechos de la personalidad, derivados de la dignidad humana y dirigidos a la protección del patrimonio moral de las personas son, no obstante, derechos autónomos, que tienen un contenido propio y específico”*.

Ildo beretik, intimitate eskubidea, sekreturako eskubidea dela adierazten du Konstituzio Auzitegiak, hots, EKko 18.1 artikulua, ezezagunak, anonimoak izateko eskubidea bermatzen du, eta beraz, gainerakoek zer garen edo zer egiten dugun jakitun ez izateko eskubidea dugu. Horren haritik, norberak bere bizitza pribatuari buruzko mugak ezartzeko eskubideduna izango da, eta berak egoki ikusten dituen bere bizitzari buruzko espazioak gorde ditzake hirugarrenen jakin minetik at. Konkretuki horrela adierazi du: *“la existencia de un ámbito propio y reservado frente a la acción y conocimiento de los demás, necesario, según las pautas de nuestra cultura, para*

intimitatea baino termino zabalagozat, hots, generikoagozat jotzen du eta ezagutzat orokorrekoa izatea nahi ez dugun informazio oro barnebiltzen du. Honen barruan, intimitatea egongo litzateke, indar handiagoz babesten dugun nukleoa alegia. DE VERDA Y BEAMONTEK (*La protección del derecho a la intimidad frente a las indiscreciones literarias*, Thomson-Aranzadi S.A, Cizur Menor, 2012, 14. orr. eta hurrengoak) edo GRIMALT SERVERAK (*La protección civil de los derechos al honor, a la intimidad y a la propia imagen*, Iustel, Madrid, 2007, 69. orr) ere bizitza pribatua eta intimitatearen arteko bereziketa egiten dute, eta biek adierazten dute bizitza pribatuaren kontzeptua, intimitatea baino kontzeptu zabalagoa dela.

32 Espainia. Maiatzaren 5eko 1/1982ko Lege Organikoa, Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea babesteari buruzkoa. 7. eta 8. artk. legez kontrako intromisioei buruz dihardu, eremu pribatuaren mugak zehazten lagundu dezaketenak.

33 CABEZUELO ARENAS, Ana Laura: *Derecho a la intimidad*. Tirant to Blanch, Valentzia, 1998, 34.orr

34 KAKo 127/2003 ekainaren 30eko epaia (6. OJ), zit. lan honen 23. oinarrian

*mantener una calidad mínima de la vida humana, que puede ceder ante la prevalencia de otros derechos, como el derecho a la información cuando se refiera a hechos con relevancia pública, en el sentido de noticiables, y a que dicha información sea veraz*³⁵”.

Honen ostean, Konstituzio Auzitegiaren urtarrilaren 30eko 12/2012ko epaia³⁶ nabarmendu dezakegu. Epaia honek, 127/2003ko epaiak adierazten duena berresten du, hots, intimitate eskubidea, eskubide autonomotzat hartzen du. Hori dela eta, EKko 18.1 artikulua jasotzen dituen oinarrizko eskubideak berezko substantibotasuna eta edukia izateaz gain, eskubide bakoitzak bere esparru propioa duela adierazten du. Ildo beretik, intimitatearen kontzeptuari dagokionez, Auzitegi honek, berriz adierazten du intimitatea, gure kulturaren sinismen eta jarraibideen arabera gutxieneko bizi kalitatea bermatzeko besteen ezagutzatik kanpo dugun esparru propioa dela.

Aipatutakoaz gain, 12/2012ko epaiak argi jasotzen du, EKko 18.1 artikuluan jasotako intimitate eskubidea ez dela bakarrik etxeko eremu edo eremu pribatura mugatzen: “[l]a intimidación protegida por el art. 18.1 CE (RCL 1978, 2836) no se reduce necesariamente a la que se desarrolla en un ámbito doméstico o privado”. Beraz, intimitate eskubidea etxeko eremu eta eremu pribatua jaso ez ezik, hirugarrenengandik behatuak edo entzunak ez izateko eskubidea ere jasotzen du.

Horrenbestez, bai Espainiako Konstituzioak bai 1/1982ko Lege Organikoak intimitate eskubidea oinarrizko eskubide gisa jaso arren, ez diote definizio zehatz bat ematen. Hori dela eta, intimitate eskubidea zer den ezagutzeko, bai jurisprudentziara bai doktrinara³⁷ jo beharra eragiten du, gizartearekin batera aldatuz joaten den kontzeptua

35 KAKo 127/2003 ekainaren 30eko epaia (7. OJ).

36 KAKo 12/2012 urtarrilaren 30eko epaia (5. OJ): “[...] Los derechos fundamentales a la intimidad personal y a la propia imagen, al igual que el derecho al honor reconocido en el mismo precepto constitucional, tienen sustantividad y contenido propio en nuestro ordenamiento, de modo que ninguno queda subsumido en el otro [...]”.

37 CODES CALATRAVA, José María: *Comentario de la...*, zit., 263.orr.: Calatrava, Von Hannover kasuari buruz egindako iruzkina kontuan har dezakegu doktrinak, intimitate eskubidearen inguruan emandako kontzeptua zabaltzeko. Honek, DIEZ-PICAZOK eta LACRUZEN antzera, intimitate eskubidea nortasunari lotutako eskubidetzat hartzen du, pertsona orok eremu pribatu eta erreserbatua izateko eskubidea duela adieraziz. Bestalde, ALBADALEJOREN hitzetan, intimitatea, pertsonari bere ingurune intimo, pertsonal eta familiarra osatzen duten jardueren gaineko babesa izateko ematen zaion boterea da. Ildo beretik, botere horrek aukera ematen dio norbanakoari bere ingurune intimotik arrotzak diren pertsonak kanporatu eta interesdunak nahi ez duen publizitatea ematetik baztertzeko.

baita³⁸. Hortaz, orokorrean adierazi arren, intimitaterako eskubideak, anonimotasunarerako eskubidea barnebiltzen du, hots, gure bizitza pertsonalaren esparruaren sekretua bermatzea du helburu, eta debekatu egiten du hirugarrenek, partikularrek edo botere publikoek erabakitzea zein diren gure bizitza pribatuaren inguruak³⁹. Azkenik, jakin, nazioarte mailan, intimitate eskubidea, Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak babesteko Erromako Hitzarmenaren 8. artikuluan⁴⁰ jasota dagoela. Bertan argi adierazten da, pertsona orok eskubidea duela bere bizitza pribatua eta familiarra errespetatua izan dadin.

2. Ohore eskubidearen kontzeptua eta erregulazioa

Ohore eskubidea EKko 18.1 artikulua oinarrizko eskubidetzat babestu arren (intimitate eta norberaren irudiaren eskubidearekin batera), ez dio legezko definiziorik ematen, eta 1/1982 LOaren 7.7 artikulua⁴¹, definitu baino, kontzeptu negatiboa ematen du, lesio edo esku-sartze ez-zilegia (intromisioa) zer den adieraziz. Honen aurrean, HERRERO TEJEDORrek⁴² argi azpimarratu du, ondasun juridiko honi buruzko definizioa emateko zailtasunak daudela, izan ere, ez Espainiar Konstituzioak ez 1/1982 LOak, ez dute ohorea definitzeko ahaleginik egiten, eta jakinik, denboraren eta gizartearen unean-uneko ideien menpe dagoen kontzeptua dela, ezinezkoa da ohore eskubideari buruzko kontzeptu zehatza ematea. Hala ere, intimitate eskubidea definitzeko erabilitako dinamika berdina jarraikiz, ohore eskubidea, bai doktrinaren bai jurisprudentziaren ikuspuntutik aztertuko dugu.

38 KAKo 231/1988 abenduaren 2ko epaia (2. Gertakaria): “(...)la esfera de la intimidad personal viene determinada por las ideas que prevalezcan en cada momento en la sociedad y por el propio concepto y las pautas de comportamiento que cada persona según sus actos mantenga(...)”.

39 ARCE JANÁRIZ, Alberto: *El derecho a la intimidad de Samuel D. Warren y Louis D. Brandeis*. ARCE JANÁRIZek, bai arestian aipaturiko LACRUZEN hitzak bai Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziak adierazitakoa berresten du, hots, intimitatea kulturaren jarraibideen arabera norbanako orok bere esparru propioa eta pribatua izateko eskubidea dela, gainerakoek ezagutzaren aurrean, gutxieneko giza kalitatea mantentzeko beharrezkoa dena.

40 Europar Batasuna. Azaroaren 4ko 1950eko Erromako Hitzarmena, Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak babesteari buruzko 8. artikulua.

41 Espainia. Maiatzaren 5eko 1/1982ko Lege Organikoa, Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea babesteari buruzko 7.7. artikulua.

42 HERRERO TEJEDOR, Fernando: *Honor, intimidad y propia imagen*, Colex, Madril, 1990, 73. orr.

Alde batetik, ohore eskubidearen kontzeptua doktrinalki aho batez onartu da, Italiar doktrinak emandako definizioa oinarri hartuz⁴³: Ohorea duintasun pertsonaltzat hartzen da, besteen aintzatespenean eta norberaren sentimenduan islatzen dena⁴⁴. Ildo beretik, 1987ko martxoaren 23ko epaiaz geroztik, ohorea bi ikuspegik osatzen dutela errepikatu da, lehenengoa, immanentziarena (subjektiboa), hots, pertsona bakoitzak bere buruaz egiten duen estimazioa litzatekeena eta bigarrenik transzendentziarena (objektiboa), zera, besteek gure duintasunari egiten dioten aitorenpean osatzen duena⁴⁵. Beste era batera esanda, eta MARTÍNEZ DE PISÓN autoreak⁴⁶ berretsi bezala, ikuspegi subjektiboa, pertsona bakoitzak bere buruaz duen estimuan datza; eta ikuspegi objektiboa ordea, besteek gure duintasuna aitortzean eta errespetatzean datza. Beraz, ezin uka daiteke, ospea eta gizarte iritziarekin lotura duen kontzeptua dela.

DÍEZ-PICAZOren arabera⁴⁷, ohorerako eskubideak babesten duen balioa edo ondasun juridikoa gizarte-estimua da, hots, besteen aurrean ospe ona⁴⁸ izatea. Ohorerako eskubidea, beraz, besteek guri buruz izan behar duten iritzia ez kaltetzeko eskubidea

43 AGko 861/97 urriaren 9ko epaia (2. OJ): “[...] *En la doctrina, se ha aceptado unánimamente la definición procedente de la italiana: dignidad personal reflejada en la consideración de las demás y en el sentimiento de la propia persona. La cual ha sido, a su vez, aceptada y seguida por esta Sala, que, desde la sentencia de 23 de marzo de 1987, reitera que el honor se integra por dos aspectos, el de la inmanencia representado por la estimación que cada persona hace de sí misma, y el de la trascendencia, integrado por el reconocimiento que los demás hacen de nuestra dignidad [...]*”.

44 LACRUZ BERDEJO, José Luis eta beste batzuk: *Elementos del derecho...*, zit. 91. orr. DE CUPISen doktrinak, arestian aipaturiko bi adierak, hots, objektiboa (transzendentzia) eta subjektiboa (immanentziarena) laburbiltzen ditu. Ohorea beraz, norberaren barne-balioa, hirugarrenen estimua, edo gizarteak pertsona batekiko izan behar duen begirunetzat jotzen du, baita norberaren izen ona edo ospe ona errespetatua izateko eskubidetzat ere. Era berean, norberaren duintasunaren sentimendua eta kontzientzia ere bada.

45 AGko 1987ko martxoaren 23ko epaia (4. OJ): “[...] *este derecho fundamental se encuentra integrado por dos aspectos o actitudes íntimamente conexas: el de la inmanencia o mismidad, representada por la estimación que cada persona hace de sí misma; y el de la trascendencia o exterioridad, integrado por el reconocimiento que los demás hacen de nuestra dignidad [...]*”.

46 MARTÍNEZ DE PISÓN, José: *El derecho a la intimidad: de la configuración inicial a los últimos desarrollos en la jurisprudencia constitucional*, Anuario de Filosofía de Derecho, 2016, 416. orr. eta hurrengoak.

47 DÍEZ-PICAZO Luis María: *Sistema de derechos...*, zit., 295-296. orrk.

48 FAYOS GARDÓ, Antonio: *Los derechos a la intimidad y a la propia imagen: un análisis de la jurisprudencia española, británica y del Tribunal Europeo de Derechos Humanos*, InDret, Barcelona, 2007, 10.orr.: FAYOS GARDÓk adierazten duen bezala, pertsona orok hirugarrenen aurrean ospe ona izateko eskubidea dugun arren, pertsona publiko eta pribatuen arteko ezberdintasuna nabaria da, izan ere, Konstituzio Auzitegiak adierazten duen bezala, pertsona publikoek haien ohore eskubidean esku hartze handiagoak jasan beharko dituzte. Hala ere, bai pertsona publikoek bai pertsona pribatuek ohore eskubidearen titularrak dira, eta beraz besteen aurrean haien izen ona mantentzeko eskubidea dute.

litzateke. Are gehiago, BERDUGO GOMEZ DE LA TORREK⁴⁹ adierazten duen bezala, ohorea, pertsona orok komunitatean duen parte-hartzearekin lotura zuzena duen eskubidea da.

DE VERDA Y BEAMONTEK⁵⁰ aldiz, ohorea definitzea jurisprudentzia⁵¹ eta doktrinaren lana izan dela adierazten du. Hari beretik, gaur egun ohorea, pertsona orori, pertsona izate hutsagatik⁵², jaiotzetik aitortu behar zaion duintasun jakin batekin identifikatzen bada ere, beste garai batzuetan pertsona baten ohorea, pertsona beraren zein senideen portaera ukiezinarekin lotzen zen, bereziki sexuaren ikuspuntu eta eremutik⁵³. Bestalde, ezin uka daiteke, ohorearen esanahiak, aldaketa nabarmenak izan

49 BERDUGO GÓMEZ DE LA TORRE, Ignacio: *Honor y libertad de expresión*, Technos Argitaletxea, Madril, 1987, 62. orr.

50 DE VERDA Y BEAMONTE, José Ramón (koord.): *Veinticinco años de aplicación de la Ley Orgánica 1/1982, de 5 de mayo, de protección civil del derecho al honor, a la intimidad personal y familiar y a la propia imagen*, Thomson-Aranzadi S.A, Cizur Menor, 2007, 23. orr. eta hurrengoak.

51 DE VERDA Y BEAMONTE, José Ramón: *Los derechos fundamentales de la personalidad (al honor, a la intimidad y a la propia imagen) como categoría unitaria*, 2017, 82. orr. Testu honetan, VERDA Y BEAMONTEK, Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziara jo du ohore eskubidearen kontzeptua aztertu eta jorratzeko. Horretarako, KAren urriaren 11ko 180/1999epaia, urtarrilaren 15eko 9/2007ko epaia eta abenduaren 19ko 216/2013 epaia oinarri hartuz, honako hau adierazi du ohore eskubidearen definizio eta babesaren inguruan: “[...] *ampara a la persona frente a expresiones o mensajes que lo hagan desmerecer en la consideración ajena al ir en su descrédito o menosprecio o que fueran tenidas en el concepto público por afrentosas [...]*”; era berean modu argian islatu du, “[...] *“la especial conexión entre el derecho al honor y la dignidad humana, pues la dignidad es la cualidad intrínseca al ser humano y, en última instancia, fundamento y núcleo irreductible del derecho al honor [...]*”. Azkenik, ondorio gisa, adierazten du “[...] *“que el derecho al honor es una emanación de la dignidad, entendido como el derecho a ser respetado por los demás[...]*”. Horrela berretsi du, Konstituzio Auzitegiko urtarrilaren 15eko 9/2007epaiak ere, 3. OJan.

52 DE VERDA Y BEAMONTE, José Ramón (koord.): *Veinticinco años de...*, zit., 24.orr: Doktrinak, ohorea duintasunaren kontzeptura hurbiltzeko ahaleginak egin ditu. Izan ere, pertsona orok, pertsona hutsa izateagatik izan behar duen ezaugarritzat jo du, eta ez ordea, gizarte-klase jakin batekoak izateagatik. ROMERO COLOMAk adierazi duen bezala: *“lo que ocurre es que el valor ético y social de una persona, producto de sus acciones y del cumplimiento de sus deberes sociales y éticos, acrecienta el derecho al respecto de los demás. Aquí lógicamente, aparecería el subjetivismo y de que se revisten todas las apreciaciones humanas”* (ROMERO COLOMA, Aurelia María: *El honor y libertad de expresión de la Constitución Española de 1978 y en la doctrina del Tribunal Constitucional*, La Ley, 1994, 953-956).

53 DE VERDA Y BEAMONTE, José Ramón (koord.): *Veinticinco años de...*, zit., 24.orr: Emakume batek beste senargai bat izan zuela iradokitzeak, eragozpena izan zitekeen, garai bateko gizarte itxi eta guztiz moralista batean, senargai bat aurkitzeko eta haren ospe onari eragiteko. Ildo beretik, AGko 1943ko apirilaren 26ko epaia jarraikiz, prestutasuna, birjinia zen emakumeari bakarrik atxiki zitekeen ezaugarria zen. Era berean, epai honen azken kontuan hartuzkoan, honako esaldia txertatu zuen Auzitegi Gorenak: *“La defensa de su honra por parte de la mujer honesta”*, alegia, ohorea, birjintasunarekin parekatuz. Bestalde, AGko 1967ko ekainaren 27ko epaiak zehazten du: *“aunque esta virginidad es término diferente por su contenido, esencia y cualitativa matización, al de honestidad, que es nada más que la ausencia de una moral sexual perversa, sin embargo, la doctrina de esta Sala, concediendo superior entidad valorativa a lo ético sobre lo puramente físico, emplea ambas expresiones con virtual sinonimia, por lo que toda mujer soltera, que mantenga vida honesta [...] y manifiesta buena vida, costumbres o ejemplar conducta, ha de presumirse virgen y doncella, por equivalencia finalista de amos terminos”*.

dituela, bai une historikoaren arabera bai testuinguru kulturalen arabera ere. Hala ere, gaur egun, pertsona baten sexu portaerei buruzko baieztapenek, gizartean aztoramena sortzeaz gain, norbanakoaren ohorean ere eragin dezakete. Ildo beretik, jakina denez, baieztapenek izan dezaketen eragina subjektuaren arabera izango da, ez baitu eragin berdina izango, publikoa edo pribatua den pertsona bati buruzko informazioak.

Bestalde, arestian aipatutako Konstituzio Auzitegiaren ekainaren 30eko 127/2003ko epaia⁵⁴ erabiliko dugu jurisprudenzialki ohore eskubidearen kontzeptua eta bere autonomia aztertzeko. Epaia honek argi adierazten du, EKko 18.1 artikulua jasotzen dituen oinarritzko eskubideen artean erlazioa egon arren, eskubide autonomoak direla⁵⁵.

Ohore eskubideari dagokionez, Konstituzio Auzitegiak adierazi du, aldatuz doan eskubidea dela, hots, arauen eta balioen mende dagoen kontzeptu juridikoa da, indarrean dauden unean uneko ideia sozialen menpe dagoena. Modu ulergarrian, horrela jaso du Konstituzio Auzitegiak, ohore eskubidearen kontzeptua; zera, EKko 18.1 artikulua babestutako oinarritzko eskubidea da eta pertsona orok duen duintasunaren ondorioz, titularrari, norberaren aurrean edo besteen aurrean iseka edo umiliatua ez izateko eskubidea eta babesa ematen dio.

Ildo beretik, Konstituzio Auzitegiaren otsailaren 25ko 25/2019ko epaia⁵⁶ litzateke aipagarri. Epaia honen arabera, ohore eskubidea pertsona baten ospe ona urratua ez dela bermatzeaz arduratzen da, hots, norbanakoaren ospeari kalte eragin diezaiokeen

54 KAKo 127/2003 ekainaren 30eko epaia (6. OJ): “[...] *este Tribunal ha admitido que el contenido de el derecho al honor «es lábil y fluido, cambiante» (STC 170/1994, de 7 de junio, FJ 4), de tal suerte que una de sus características principales consiste en ser «un concepto jurídico normativo cuya precisión depende de las normas, valores e ideas sociales vigentes en cada momento» [...]. [...] puede considerarse «la buena reputación de una persona, protegiéndola frente a expresiones o mensajes que le hagan desmerecer en la consideración ajena al ir en su descrédito o menosprecio o que sean tenidas en el concepto público por afrentosas» [...].*

55 Ikusi lan honen “Intimidade eskubidearen kontzeptua eta erregulazioa” atala, 13. orr.

56 KAKo 25/2019 otsailaren 25eko epaia(4.OJ): “[...] c) *El derecho al honor garantiza “la buena reputación de una persona, protegiéndola frente a expresiones o mensajes” que la hagan “desmerecer en la consideración ajena al ir en su descrédito o menosprecio o que sean tenidas en el concepto público por afrentosas” (por todas, SSTC 216/2013, de 19 de julio, FJ 5, y 65/2015, de 13 de abril, FJ 3). El honor que la Constitución protege es también el que se expone y acredita en la vida profesional del sujeto, vertiente de la actividad individual que no podrá ser, sin daño para el derecho fundamental, menospreciada sin razón legítima, con temeridad o por capricho (SSTC 216/2013, FJ 5, y 65/2015, FJ 3) [...].*

hitz eta esaldi orotik babesten du. Era berean, KAko 216/2013⁵⁷ eta 65/2015epaiek⁵⁸ adierazitakoa berresten dute: *“la buena reputación de una persona, protegiéndola frente a expresiones o mensajes” que la hagan “desmerecer en la consideración ajena al ir en su descrédito o menosprecio o que sean tenidas en el concepto público por afrentosas”* .

Bestalde, Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak⁵⁹, azpimarratzen duen bezala, ezinezkoa da gure ordenamendu juridikoan ohore eskubideari buruz kontzeptu bateratu bat ematea. Izan ere, gorago esan bezala, ohorea, gizartean unean-uneko ideien, arau eta balioen araberakoa da, eta arestian garatutako doktrina jurisprudenziala jarraikiz, ikuspegi bikoitza dauka, hots, objektiboa (transzendentzia) eta subjektiboa (immanentzia).

Esandakoa ondorioztatuz, biktimaren ohore-eskubidea urratu dela esateko, beharrezkoa da, delitu baten biktima dela adierazteaz gain, adierazpen iraingarriak zabaltzea. Biktimaren identitatea zuzeneko edo zeharkako delitu-egitateei buruzko informazioaren bidez ezagutu daitekeenean ordea, intimitaterako eskubidea izango da urratzen ari den oinarrizko eskubidea. Amaitzeko, aztertu ez arren, Konstituzio Auzitegiko epai honetan, demandatzailea zen biktimak, egunkari baten aurka demanda jarri zuen, zabaldutako informazio eta datuen ondorioz, bere aitak egindako bortxaketa baten biktima gisa identifikatu zitekeelako. Kasu honetan, ez ziren adierazpen iraingarririk zabaldu, eta horren ondorioz, intimitaterako eskubidea urratu zen arren, ezin da esan ohore eskubidea urratu zenik.

57 KAko 216/2013 abenduaren 19ko epaia (5. OJ): Aipatutakoaz gain, ohore eskubideak honakoa ere babesten du: “[...] *protege también frente aquellas críticas o informaciones acerca de la conducta profesional o laboral de una persona que pueden constituir “un auténtico ataque a su honor personal, incluso de especial gravedad, ya que ‘la actividad profesional suele ser una de las formas más destacadas de manifestación externa de la personalidad y de la relación del individuo con el resto de la colectividad, de forma que la descalificación injuriosa o innecesaria de ese comportamiento tiene un especial e intenso efecto sobre dicha relación y sobre lo que los demás puedan pensar de una persona [...]’*”.

58 KAko 65/2015 apirilaren 13ko epaia (3.OJ): “[...] *Es preciso también puntualizar, porque así lo requiere el correcto encuadramiento constitucional del actual caso, que el honor que la Constitución protege es también el que se expone y acredita en la vida profesional del sujeto, vertiente ésta de la actividad individual que no podrá ser, sin daño para el derecho fundamental, menospreciada sin razón legítima, con temeridad o por capricho [respecto al “prestigio profesional[...]*”.

59 Auzitegi Goreneko 2013ko otsailaren 5eko eta otsailaren 18ko epaiak: *“El artículo 7.7 LPDH define el derecho al honor en un sentido negativo, desde el punto de vista de considerar que hay intromisión por la imputación de hechos o la manifestación de juicios de valor a través de acciones o expresiones que de cualquier modo lesionen la dignidad de otra persona, menoscabando su fama o atentando contra su propia estimación”*.

Horrenbestez, ohorea kontzeptualizatuta egon arren, haren edukia zehaztugabea dela adieraz dezakegu, eta beraz, une bakoitzean Espainiar Estatuan indarrean dauden, arau, gizarte balio eta ideien araberakoa izango da⁶⁰. Gauzak horrela, organo judizialek gizartearen egungo egoera kontuan hartu behar izango dute, ohore eskubidea urratu den edo ez jakiteko eta horrela adierazi da bai doktrinalki bai jurisprudenzialki. Hori dela eta, labor bada ere, gaur egun, ohorea pertsona ororen proiektzio sozial eta indibiduala babesteko eskubidea dela adieraz dezakegu.

3. Intimitate eskubidea babes prozesalaren eta prozesutik kanpoko ikuspegitik

Sarrera gisa, adierazi daiteke Europar Batasuna bere Estatu Kideetako biktimei laguntza eta babesa ematearen alde agertu dela. Horren adibide, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012ko urriaren 25eko 2012/29/EB Zuzentaraua⁶¹ litzateke. Hala ere, jakin behar dugu, Europar Batasunaren eremuan delituen biktimei babesa emateko beharra ez dela gaur egungo kezka, bai jurisprudenzialki bai legez aurrekariak dituen gaia baita.

Gauzak horrela, 2012/29/EB Zuzentaruaren 21. artikulua argi adierazten du, Europar Batasuneko estatu kideen ardura izango dela agintari eskudunek zigor prozesuan zehar biktimaren eta haren senideen⁶² intimitatea babesteko neurri egokiak hartzen dituztela bermatzea. Bereziki, adingabeak diren edo babes berezia behar duten pertsona ezgaituak identifikagarri egin dezaketan informazio ororen zabalkuntza eza bermatu behar dute. Bestalde, lege bereko 22. artikulua jarraikiz, genero indarkeriaren

60 KAKo 49/2001 otsailaren 26ko epaia (5. OJ): “[...] el honor, como objeto del derecho consagrado en el art. 18.1 CE, es un concepto jurídico indeterminado cuya delimitación depende de las normas, valores e ideas sociales vigentes en cada momento, y de ahí que los órganos judiciales dispongan de un cierto margen de apreciación a la hora de concretar en cada caso qué deba tenerse por lesivo del derecho fundamental que lo protege[...]”.

61 Europar Batasuna. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012ko urriaren 25eko 2012/29/EB Zuzentaraua, Delituen Biktimen eskubideei, laguntzari eta babesari buruzko gutxieneko arauak ezartzen dituen eta Kontseiluaren 2001/220/JAI esparru erabakia ordezkatzen duena, Biktimaren Estatutuari dagokiona. Aurrerantzean, 2012/29/EB Zuzentaraua.

62 PEINADO BLÁZQUEZ, Maria Dolores: *La Directiva 2012/29/UE ¿Un paso adelante en materia de protección a las víctimas en la Unión Europea?* Revista de Derecho Comunitario Europeo, Madril, 2013, 922. orr. PEINADO BLÁZQUEZek adierazi bezala, 2012/29/EB Zuzentaruak, biktimaren kontzeptuari buruz 2001/220/JAI esparru erabakia baino definizio zabalagoa ematen du. Izan ere, 2012/29/EB Zuzentaruak, biktimaren kontzeptuaren barne, zuzeneko den biktima sartzeaz gain, haren familiarrak (zeharkako biktimak) ere barnebiltzen ditu.

biktima orok, unean uneko eta banakako ebaluazioa⁶³ jaso behar izango du, hain zuzen ere, bere egoeraren arabera beharrezkoak diren neurriak hartu, eta horrela bigarren mailako biktimizazioa ekidin ahal izateko⁶⁴. Hari beretik, banakako ebaluazioa gauzatzeko, biktimaren ezaugarri oro kontuan hartuko da, baita erasotzailearekin duen harreman mota eta delituaren izaera ere.

Behin ebaluazioa amaituta, ikerketa fasean, babes berezia behar duten biktimen eskubideak⁶⁵ eta bereziki intimitate eskubidearen babes bermatuta gera dadin, 2012/29/EB Zuzentarauaren 23.2 artikulua jasotzen dituen neurriak errespetatu beharko dituzte. Orain aipatutako artikulua jarraikiz, eta biktimari eskubide gisa hartu behar zaion deklarazioari dagokionez, alde batetik, bereziki intimitate eskubidea babestuta gera dadin, horretara bideratutako tokietan gauzatu behar izango diotela adierazten du. Bestalde, deklarazioa prestakuntza egokia duten profesionalen eskutik gauzatu behar izateaz gain, deklarazio-hartze guztiak pertsona berak egiteko beharra eskatzen du, Justizia Administrazioak bestelakorik esaten ez duen bitartean.

Hari beretik, prozesuan zehar, zeharka intimitate eskubidea babesteko, neurriak hartu arren⁶⁶, bereziki epaiketaren fasean, 2012/29/EB Zuzentarauaren 23.3 artikulua oinarri hartuz, biktimaren intimitate eskubidea babes prozesalaren ikuspegitik bi neurriren bidez bermatu daitekeela adieraz dezakegu. Alde batetik, biktimaren bizitza pribatuari buruz, beharrezkoak ez diren galderak ekiditeko beharra egongo da, arau-hauste penalarekin zerikusia ez duten heinean⁶⁷. Beste aldetik, publikorik gabeko entzunaldia egiteko aukera egongo da, hots, izaera pribatukoa⁶⁸.

63 AGUDO FERNÁNDEZ, Enrique eta beste batzuk: *La Víctima en la Justicia Penal (El Estatuto Jurídico de la víctima del delito)*, Dykinson, Madril, 2016, 115-122 orrk. AGUDOK eta beste autore batzuek adierazi bezala, 2012/29/EB Zuzentarauak agintzen duen biktimen unean uneko eta banakako ebaluazioaren bidez, biktima bakoitzaren beharren arabera neurriak hartu nahi dira. Era berean, prozesuaren fase orotan, biktimaren eskubideak eta gure kasuan, aztertzen ari garen intimitate eskubidea babestuta egon dadin, prozesuan zehar babes neurriak eguneratzeko aukera egongo da. Ildo beretik, banakako ebaluazioa gauzatzeko tresna egokiena EVVI (Evaluación de víctimas) dela adierazten dute, honek biktima bakoitzaren babes beharrian argi identifikatzeko aukera ematen baitu.

64 Ikusi 2012/29/EB Zuzentarauaren 22.1 artikulua

65 Ikusi 2012/29/EB Zuzentarauaren 23. artikulua

66 Ikusi 2012/29/EB Zuzentarauaren 23.2 artikuluko beste neurriak

67 Ikusi 2012/29/EB Zuzentarauaren 23.3 c) artikulua

68 Ikusi 2012/29/EB Zuzentarauaren 23.3 d) artikulua

Aipatutakoaz gain, jakin behar dugu, biktimak, adingabeak⁶⁹ diren kasuetan, 29/2012/EB Zuzentarauaren ondorioetarako babes premia bereziak dituzten pertsonatzat hartuko direla, bigarren mailako biktimizazioa edo birbiktimizazioa, larderia eta errepresaliak jasateko duten arriskuaren ondorioz⁷⁰. Nolanahi ere, zein babes-neurri berezien onuradun izan behar diren zehazteko, intimitate eskubidearen prozesu barruko babesa eskaintzen dutenak barne, banakako ebaluazioa egingo zaie.

Gauzak horrela, estatu kideek prozesuan zehar, biktimaren intimitate eskubidea babesteko betebeharra izateaz gain, prozesutik kanpo ere babesteko betebeharra izango dute. Hari beretik, ikusi dugu, 29/2012/EB Zuzentarauaren 21. artikulua biktimen intimitaterako eskubidearen babesa jasotzen duela. Honek, zigor-prozesuan zehar, biktimen intimitatea babesteko, Estatu Kideek neurri egokiak hartzeko betebeharra dutela jasotzeaz gain⁷¹, Estatu Kide bakoitzak, barruko komunikabideen adierazpen askatasuna eta pluraltasuna errespetatuz, autoerregulazio-neurriak aplikatzeko eskatu behar dietela ezartzen du, biktimen intimitatea, osotasun pertsonala eta datu pertsonalak babesteko xedez. Beste era batera adieraziz, 29/2012/EB Zuzentarauak, estatu kideei agintzen die, biktima babesteko beharrezko tresnak eman behar dizkietela agente publikoei bigarren mailako biktimizazioa eragin diezaioketen eragileetatik babesteko; hots, komunikabideen jardueraren bidez eratutako iritzi publikotik.

Hari beretik, intimitate eskubideari dagokionez, 2012/29/EB Zuzentarauaren 21.1 artikulua biktimaren intimitate eskubidearen babesa sustatzen du prozesu penalak irauin bitartean, hots, biktimak salaketa jartzen duenetik⁷², agintari eskudunek (epaileek, fiskalak...), biktimaren intimitate eskubidea babesteko beharrezko neurriak hartu behar izango dituzte. Ildo beretik, 2012/29/EB Zuzentarauaren 27. artikulua, Estatu

69 PORRES GARCÍA, Izaskun eta beste batzuk: *Derecho a la...*, zit., 40.orr.

70 Ikusi 2012/29/EB Zuzentarauaren 22.4 artikulua.

71 AGUDO FERNÁNDEZ, Enrique eta beste batzuk: *La Víctima en...* zit., 112-114 orrk.

72 AGUDO FERNÁNDEZ, Enrique eta beste batzuk: *La Víctima en...* zit., 110. orr. AGUDO FERNÁNDEZ eta beste batzuek adierazi bezala: “*Los Estados miembros deben velar porque durante las investigaciones penales se garantice que:*

a) La toma de declaración de las víctimas se lleve a cabo sin dilaciones injustificadas, una vez se haya presentado ante la autoridad competente la denuncia de una infracción penal;

b) El número de declaraciones de las víctimas sea el menor posible y solo se celebren cuando sea estrictamente necesario para los fines de las investigaciones penales”.

bakoitzak hartu beharreko neurriak zeintzuk diren erabakitzeko eskudun direla adierazi arren, 2012/29/EB Zuzentarauak, bete behar diren gutxieneko neurriak ezartzen ditu⁷³.

Lehenik eta behin, intimitate eskubideak, biktimen ezaugarri pertsonalak ere barnebilduko dituela adierazten du, biktima bakoitzaren ebaluazio indibiduala egin eta horrela beharrezko neurriak hartu ahal izateko. Bigarrenik, autoritateek hartzen dituzten neurriak, biktimaren intimitate eskubidea babesteko egokiak izan behar direla azaltzen du. Hirugarrenik, agintari eskudunek, biktimak diren adingabeen intimitate eskubidea babesteko, neurri legalak hartu ditzaketela esaten du adingabea identifikagarri egiten duen edozein informazioaren zabalkuntza ekiditeko.

Beraz, ezin uka daiteke, hiru neurri hauek ezinbestekoak direla biktimaren intimitate eskubidea babesten dela bermatu, eta horrela birbiktimizazioa ekidin ahal izateko. Izan ere, 2012/29/EB Zuzentarauaren 54. zuzenbide oinarrian adierazten den bezala, biktimaren pribatutasuna babestea, birbiktimizazioa ekiditeko bitarteko garrantzitsua izan daiteke. Hala ere, lanean zehar aztertuko den bezala, zenbaitetan intimitate eskubidearen eta informazio eskubidearen arteko talka egongo da. Hori dela eta, Espainiar Estatuak, delituen biktimen intimitatea babesteko beharrezko neurriak hartzeko betebeharra izango du eta neurri horiek bat etorri beharko dute Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak babesteari buruzko Hitzarmenaren 6. eta 10. artikuluek⁷⁴ jasotzen duten bidezko prozesu eta adierazpen-askatasunerako eskubideekin.

Gauzak horrela, funtsezkoak diren hiru ezaugarri⁷⁵ kontuan izan behar ditugu, oinarrizkoak diren bi eskubidek talka egiten dutenean. Lehenik eta behin, ez dugu ahaztu behar, ez dagoela izaera absolutua duen oinarrizko eskubiderik. Beraz, bi eskubide edo gehiagoren artean gatazka dagoen kasuetan baten bat “juridikoki sakrifikatua” izan beharko da, gatazkan dagoen eskubideren bat gailenduz. Bigarrenik,

73 PORRES GARCÍA, Izaskun eta beste batzuk: *Derecho a la...*, zit.,41-42.orrk.

74 Ikusi Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak babesteari buruzko hitzarmenaren 6. eta 10. artikulua.

75 PORRES GARCÍA, Izaskun eta beste batzuk: *Derecho a la...*, zit., 42.orr. PORRES GARCIAK eta beste batzuek adierazi bezala, prozesuan zehar biktimaren intimitatea babesten dela bermatzeko, aipatutako hiru ezaugarriez gain, beste bi neurri gehigarri hartu daitezke. Alde batetik, biktimaren bizitza pribatuari buruz, beharrezkoak ez diren galderak ekiditea, eta beste aldetik, publikorik gabeko entzunaldia egiteko aukera.

haztaper hori, agintaritzea judizial batek egin beharko duela jakin behar dugu eta hirugarrenik, proportzionaltasun printzipioak, gailendu behar den eskubidearen beharra justifikatuko duela.

Ildo beretik, 2012/29/EB Zuzentarauaren 21.2 artikulua oinarri hartuz, eta kontuan izanik, konstituzio-sistema orotan, adierazpen-askatasunak eta komunikabideen informazio-askatasunak duen garrantzia, estatukideek, komunikabideei eskatu behar izango diete, biktimaren intimitatea babesteko autorregulazio-neurriak aplikatu ditzatela. Hau esanda, Espainiar Estatuak, biktimen intimitate eskubidea babestuta gera dadin, prebentzio-ikuspegi eta ikuspegi errektibo bat integratzea eskatzen du. Prebentzio-ikuspegiari dagokionez, Estatuak, komunikabideei eskatu behar izango die autorregulazio-neurriak⁷⁶ aplikatu ditzatela, delituen biktimen intimitatea babesteko xedez. Ikuspegi errektiboak ordea, Estatuak, delituen biktimen intimitate babesteko neurri egokiak agintari nazionalen esku jarri behar dituztela adierazten du.

Bestalde, orain aztertu dugun 2012/29/EB Zuzentarauaz⁷⁷ gain, bai prozesuan zehar bai prozesutik kanpo biktimaren intimitateari zor zaion babesa eraginkorra izan dadin, 4/2015 Lege Organikoa ere aplikagarri litzateke; nabarmenki, Prozedura Kriminalaren Legeko 301. artikulua birmoldatu duena. Birmoldaketaren ondorioz, zigor-prozesuan zehar sumarioko eginbideak isilpekoak izateaz gain, ahozko epaiketa ireki arte, izaera pribatua mantenduko dutela adierazten du, legeak zehaztutako salbuespenak salbu. Era berean, Prozedura Kriminalaren Legeak, 301 bis artikulua erantsi zuen, adieraziz, epaileak, lege bereko 681.2 artikuluan jasotako edozein neurri hartu dezakeela ofizioz, Fiskaltzak edo biktimak eskatuta, biktimari eta haren familiari zor zaion errespetua berma dadin. Honi lotuta, Prozedura Kriminalaren Legeko 681.2

76 PORRES GARCÍA, Izaskun eta beste batzuk: *Derecho a la...*, zit., 42.orr. PORRES GARCIAK eta besteak adierazi bezala: “*Este papel promotor no sustituye, sin embargo, al rol normativo del Estado en su tarea de protección imperativa y pública de la intimidad de las víctimas de delitos, sino que lo complementa*”.

77 PEINADO BLÁZQUEZ, Maria Dolores: *La Directiva 2012/29/UE...* zit., 918.orr. PEINADO BLAZQUEZek, ondorio gisa adierazi bezala, 2012/29 Zuzentarauaren helburu nagusia delituen biktimek informazio, laguntza eta babes egokiak jasoko dituztela eta prozesu penaletan parte hartu ahal izango dutela bermatzea da. Hau da, helburu nagusia delituen biktimen eskubideei, laguntzari eta babesari buruzko gutxieneko arauak ezartzea da.

artikuluak⁷⁸ honako neurri hauek jasotzen ditu, biktimaren eta haren senideen intimitatea babestuta gera dadin:

1.- Biktima zuzenean edo zeharka identifikagarri egiten duten informazio eta datuen zabalkuntza debekatu.

2.- Biktimaren edo haren senideen irudiak lortu, zabaldu edo argitaratzea debekatu.

Azkenik, 4/2015eko Lege Organikoak, Prozedura Kriminalaren Legeko 709. artikulua ere birmoldatzen du. Aurretiaz adierazi dugun bezala, artikulua honek ahozko epaiketan, frogak praktikatzen diren bitartean, epaileari edo epaimahaiburuari⁷⁹ ahalmena ematen dio biktimari bere bizitza pribatuari buruz beharrezkoak ez diren galderak egitea ekiditeko neurriak hartzea, baldin eta horiek epaitutako delitu-egitaterako garrantzirik ez badute; salbu eta epaile edo auzitegiak berak, salbuespenez uste badu erantzun egin behar zaiela biktimaren adierazpenaren egitatea edo sinesgarritasuna behar bezala baloratzeko⁸⁰.

Ondorio gisa, adierazi dezakegu, bai prozesuan zehar bai prozesutik at, biktimaren intimitate eskubidea egoki babestea, bigarren mailako biktimizazioa edo birbiktimizazioa, larderia eta errepresalia ekiditeko bitarteko garrantzitsua izan daitekeela. Ildo beretik, aztertu dugun bezala, intimitate eskubidearen babesa hainbat neurriren bidez lor daiteke, hala nola, prozesuan zehar biktimaren bizitza pribatuari buruz, beharrezkoak ez diren galderak saihestuz; edo prozesutik kanpo, biktimaren nortasuna edo egoera pertsonala identifikagarri egiten duten informazioa zabaltzeko debekua edo muga ezarriz⁸¹. Babes honek, berebiziko garrantzia dauka, biktimak adingabeak diren kasuetan, adierazi dugun bigarren mailako biktimizazioa ekiditeko.

78 PORRES GARCÍA, Izaskun eta beste batzuk: *Derecho a la...*, zit., 51-52. orrk.

79 Prozedura Kriminalaren Legeko 709. artikulua argi adierazten du, biktimaren bizitza pribatuari buruzko galderak egiten diren kasuetan, epaileak edo epaimahaiburuak ez dituela erantzuten utziko.

80 AGUDO FERNÁNDEZ, Enrique eta beste batzuk: *La Víctima en...* zit., 112-114 orrk.

81 PORRES GARCÍA, Izaskun eta beste batzuk: *Derecho a la...*, zit., 40. orrk.

IV. GENERO INDARKERIAREN BIKTIMEN INTIMITATE ETA OHORE ESKUBIDEAK VS KOMUNIKABIDEAK

1. Intimitate eskubidea eta informazio askatasuna

Komunikabideek, genero indarkeria kasuetan biktimen nortasunari lotutako (intimitate, ohore edo irudirako eskubideak) eskubideak urratu ditzakete, albisteari tratamendu egokia ematen ez dioten kasuetan; adibidez, delituzko gertaera baten berri ematean biktimaren identitatea zeharka edo zuzenean ezagutzera ematen dutenean. Lanean zehar aztertuko den bezala, mugarik gabeko informazio-askatasunak, biktima den emakumearen egoera larriagotzeko arriskua dakar, bere intimitate, ohore edo duintasuna urratuz. Gainera, horrek eguneroko bizitzan berrintegratzeko zailtasunak ekar ditzake, bigarren mailako biktimizazioa sortuz⁸².

Gaur egun, bai delituzko gertaera baten bai prozesu batean gertatutakoari buruzko informazioa izateak, prozesu publiko baten bidez epaitua izateko eskubidearen ondorioa da. Hala ere, prozesuaren publikotasun-printzipioa⁸³ oinarrizkoa den arren, ez da eskubide absolutua, eta zenbait kasuetan biktimarentzat desabantailak, eta beraz, arriskuak ekar ditzake. Era berean, biktimak prozesuan dituen eskubide guztien artean, intimitate eskubidea (ohore eta norberaren irudirako eskubidearekin batera) modu errazean urratu daitekeen eskubidea da. Hori dela eta, puntu honetan zehar ikusiko denez, intimitate eskubidea, informazio eskubidearen eta prozesuko informazio askatasunaren mugetako bat izan daiteke.

82 SERRA CRISTÓBAL, Rosario: *Los derechos de la víctima en el proceso VS. Medios de comunicación. Un ejemplo de la información sobre delitos de la violencia contra la mujer*. 2015, 200 orr.

83 Publikotasun-printzipioa: Prozesuaren publizitatea, prozesutik kanpoko edozein pertsonaren ezagutza ekartzen du, hots hiritarrena.

1.1 Intimitate eskubidearen eta informazio askatasunaren arteko gatazka

Zigor prozesuan urratu daitezkeen eskubideetatik, biktimaren intimitate eskubidea da (ohore eta irudirako eskubidearekin batera) modu errazean urratu daitezkeen eskubideetako bat; alegia, prozesuan zehar emandako gertaerei buruzko gehiegizko informazioa zabaltzen denean. Horretarako, EKko 20.4 artikulua dugu, zeinak informazio eskubideari mugak jartzen dizkion intimitate eskubidea babesteko asmoz. Hala ere, intimitate eskubidea urratu den edo ez jakiteko, oso garrantzitsua da, intimitate eskubidearen kontzeptua zehaztea eta Konstituzio Auzitegiak erabaki garrantzitsuak hartu behar izan ditu honen inguruan⁸⁴. Izan ere, intimitate eskubidearen eta informazio askatasunaren artean ez dago lehentasun, hierarkia edo nagusitasunik⁸⁵ eta horrek bi eskubideen arteko muga finko eta egonkorra diseinatzea eragozten du.

Aipatu bezala, intimitate eta informazio askatasunerako eskubideak maila berean dauden oinarritzko eskubideak dira. Hori dela eta, Espainiar Konstituzioak babestutako informazio eskubidea zehazteko irizpideetako bat, komunikatutakoaren interes publikoa aztertzea da, eta horrela berretsi du Konstituzio Auzitegiak⁸⁶. Ildo beretik, herritarrak gizartean ematen diren gertakari garrantzitsuenen berri izateko eskubidea duten arren, zenbaitetan “gehiegizko publizitate prozesala” deritzoguna ematen da, zeinetan komunikabideek behar baino informazio gehiago ematen duten⁸⁷. Kasu hauetan, komunikabideek biktimaren bizitza pribatua, helbidea edo beharrezkoa ez den bestelako informazioa ezagutzera ematen dutenean, intimitate eskubidean modu ez zilegian sartzen eta urratzen egongo liritezke.

84 Ikusi KAko 104/1986 uztailaren 17ko epaia (5. OJ) edo KAko 168/1986 abenduaren 22ko epaia (3. OJ). Bi epai hauetan, ohore eskubideaz (eta informazio eskubideaz) bereziki jardun arren, analogikoki aplikagarri zaie, EKko 18.1 artikuluan jasotzen diren beste bi eskubideei, hots, intimitate eskubideari eta norberaren irudirako eskubideari: “*el conflicto entre ambos derechos fundamentales no puede resolverse otorgando prevalencia al proclamado en el art. 18.1 de la Constitución, sino que se impone siempre una ponderación entre uno y otro, sin olvidar que en esa ponderación el derecho de información, junto con el de libre expresión, garantiza la existencia de una opinión pública libre, condición necesaria a su vez para el recto ejercicio de todos, los demás derechos en que se fundamenta el sistema político democrático.*”.

85 BOIX REIG, Javier eta beste batzuk: *La protección jurídica de la intimidad*, Iustel, Portal Derecho S.A, 2010, 243.orr.

86 KAko 52/2002 otsailaren 25eko epaia (8. OJ): “[...]No puede dejar de recordarse al respecto que una información posee relevancia pública porque sirve al interés general en la información, y lo hace por referirse a un asunto público [...]”.

87 BOIX REIG, Javier: *La protección jurídica...*, zit., 243.orr.

Gauzak horrela, 2012/29/EBko Zuzentarauak, argi islatu du genero indarkeria sufritzen duten biktimen ahultasun-egoera berezia. Hori dela eta, oso garrantzitsua da biktimen intimitate eskubidea babestea, bigarren biktimizazioa ekiditeko. 2012/29/EBko Zuzentarauak beraz, prozesuaren publizitateari mugak ezartzeko aukera aurreikusten du. Hala ere, muga horiek bat etorri behar dute GEEHren 10. artikuluan aitortzen den adierazpen-askatasunarekin⁸⁸.

Alde batetik, Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentzia ugaria den arren, biktimaren intimitatean esku-sartzea egon den edo ez zehazteko, komunikabideek emandako informazioaren beharra eta garrantzia aztertu behar dela adierazi du⁸⁹. Zehatzago esanda, transmititzen diren datuak eta informazioa, informazio-askatasunaren beharrezko elementuak betetzen ez dituztenean, hots, justifikazioa, helburu soziala edo albistea ulertzeko beharra, Espainiako Konstituzioko 20.1d) artikulua babestutako eskubidetik at egongo litzateke. Izan ere, kasu hauetan, zeinetan biktimen datuak, argazkiak... publikatzen diren, informatzeko eta informazioa jasotzeko eskubidearen xedetik urruntzen dira, biktimen eskubideak urratuz.

Gauzak horrela, adierazitakoa ikuspegi praktikotik aztertzeko, Auzitegi Goreneko hainbat epaien analisisa egingo dugu. Sarrera gisa, jakin behar dugu, Auzitegi Gorena informazio askatasun eskubidearen nagusitasunetik abiatzen dela gatazkatsuek diren gaiei erantzun arrazoitua emateko; izan ere, gizarte demokratiko batean gauden heinean, iritzi publiko bat garatzeko eskubidea dugula adierazten du. Hala ere, ematen dituen erantzunak kasuan kasukoak dira eta horregatik Auzitegi Goreneko 661/2016 azaroaren 10eko epaia⁹⁰ aztertuko dugu. Auzitegi Goreneko kasu honek, telebista kate autonomiko baten informazio askatasunaren oinarritzko eskubidearen eta genero indarkeriaren biktima den emakume baten intimitate eta irudi propiorako oinarritzko eskubidearen arteko gatazkari buruz dihardu.

88 2012/29/EB Zuzentaruak, 21.2 artikulua

89 KAKo 185/2002 urriaren 14ko epaia. KAK bortxaketa bati buruzko informazioa epaitu zuen. Bortxaketa horretan biktimaren hainbat datu ezagutzera eman ziren, eta horrek biktima identifikatzeko aukera ematen zuen. Bizitokia, bere inzialak, arropa etab. Bezalako informazioa eman zen. Antzeko erantzuna eman zuen KA 127/2003 epaian.

90 GALLARDO RODRÍGUEZ, Almudena: *Sentencia del Tribunal Supremo 661/2016 (Sala de lo Civil, Sección 1.ª), de 10 de noviembre de 2016 [ROJ STS 4836/2016]*, AIS: Revista europea e iberoamericana de pensamiento y análisis de derecho, ciencia política y criminología, Salamanca 2017, 317-319 orrk.

Kasu honetan, genero indarkeriaren biktima zen emakumeak, telebista kate baten aurka demanda jarri zuen, genero indarkeria biktima gisa alderdi zen ahozko epaiketaren grabazioa albisteetan publikatzeagatik. Telebistak publikatutako grabazioetan emakumearen irudi eta datu pertsonalak zabaldu ziren, bere izen edo bizilekua besteak beste, eta datu horiek biktima identifikagarri egiten zuten⁹¹. Hori gutxi balitz, albistea, telebista katearen hemeroteka digitalean eskuragarri egon zen herritarrentzat, biktimari kaltea sortuz. Hari beretik, aurreko bide judiziala agortu ostean, biktimak kasazio errekurtsua jarri zuen Auzitegi Gorenaren aurrean, EKko 18.1; 20,1 eta 120.1 artikuluen aplikazio ezegokia argudiatuz eta Auzitegi Gorenak errekurtsua onartu zuen.

Auzitegi Gorenak argi adierazten duenez, kasu honetan, alde batetik, ez da eztabaidatzen telebista kateak zabaldutako informazioaren egiazkotasun eta interes publikoa, ezta ahozko epaiketaren grabazioa zabaltzeko eskubidea ere; organo judizialak ez baitzuen horren inguruan, hots, ahozko epaiketaren publikotasunaren inguruan, inongo neurririk hartu (ezta biktimak eskatu ere). Hori dela eta, eztabaida litzateke zehaztea, ea telebista katearen informazio askatasun eskubidearen barne, genero indarkeriaren biktima den aurpegiaren lehen planoan, izena eta bizilekua aipatzea sartzen diren, edo biktimaren intimitate eta irudi eskubidearen oinarrizko eskubideek hori mugatzen duten.

Beste aldetik, genero indarkeriaren biktima den heinean, 1/2004ko Lege Organikoko 63. artikulura jotzen du Auzitegi Gorenak, zeinak adierazten duen genero indarkeria jardura eta prozeduretan biktimaren intimitatea babestuko dela, eta ezingo dira beraz, bere eta bere ondorengoen datu pertsonalak zabaldu. Beraz, Auzitegi

91 AGko 661/2016azaroaren 10eko epaia (5. OJ): *“La identificación de la demandante mediante su imagen y los datos personales indicados y su directa vinculación con un episodio de violencia de género y otros delitos graves, cuando era previsible la revelación simultánea o posterior de datos referidos a cómo se conocieron la víctima y su agresor y a la forma en que sucedieron los hechos delictivos, supone que la pérdida del anonimato vulnerase [...], su intimidación personal y familiar; en la medida en que unos datos reservados, pertenecientes a su vida privada (que acudió a Internet para iniciar una relación o el contenido íntimo de algunas de sus charlas), carentes de entidad ofensiva en una situación de anonimato, pasaron a tenerla desde el momento en que cualquier persona que viera esos programas informativos y que residiera en la localidad de la víctima podía saber a quién se referían, de modo que al daño psicológico inherente a su condición de víctima de los delitos se sumó el daño moral consistente en que se conocieran datos de su vida privada que no había consentido hacer públicos”.*

Gorenak biktimari eragin ziezaiokeen kaltea ikusita, argi adierazi zuen organo judizialak, ahozko epaiketa ate itxian egiteko neurririk hartu ez arren (ezta biktimak horrelakorik eskatu ere), ez zuela telebista katea salbuesten, informazioa tratatzeko eginbide profesionala urratzetik, emandako informazioak bigarren mailako biktimizazioa sortu zezakeelako. Kasu honetan, telebista kateak, ahozko epaiketaren biktimaren irudi eta datu pertsonalak publikatu zituenez, bere intimitaterako eskubidea urratu⁹² zuen, irudirako eskubidearekin batera.

Aipatu bezala, telebista kateak informazio askatasunerako eskubidea izan arren, horrek ez dio nahi beste informazio publikatzeko eskubiderik ematen, eta beraz, genero indarkeriaren biktima izan den pertsona baten intimitatea eta bestelako oinarrizko eskubideak kaltetzen direnean, informazio askatasuna mugatu egiten da.

AGko 661/2016ko epaiak beraz, argi erakutsi digu komunikabideek duten informazio askatasuna ez dela eskubide absolutua eta beraz, ezin dutela biktimaren eta prozesu penalari buruzko nahi beste informazio eta datu publikatu biktimaren intimitate edo bestelako eskubideei kalte egin diezaioketen neurrian. Hari beretik, AGko 521/2011ko uztailaren 5eko epaia aipatzea interesgarri litzateke, izan ere, genero indarkeria kasuetan, biktima identifikagarri egiten duen datuak publikatu ezin daitezkeen arren, ezin uka daiteke, herritar bezala, genero indarkeria kasuei buruz

92 DE LAS HERAS VIVES, Luis: *Reflexiones sobre el bien jurídico intimidad a propósito de la intimidación de las víctimas del delito. Comentario a la STS num. 661/2016, de 10 de noviembre*, Revista Boliviana de Derecho, 2017, 450 eta hurrengo orrk: Doktrina jurisprudenzialak, hots, Auzitegi Gorenak, kasu honetan intimitate eskubidearen urrapena eman dela adierazteko ematen dituen argudioetatik, honakoa nabarmendu dezakegu: [...] *supone que la pérdida del anonimato vulnerase tanto el derecho de la demandante a su propia imagen, por la emisión de sus rasgos físicos, como su intimidad personal y familiar, en la medida en que unos datos reservados, pertenecientes a su vida privada (que acudió a Internet para iniciar una relación o el contenido íntimo de algunas de sus charlas), carentes de entidad ofensiva en una situación de anonimato, pasaron a tenerla desde el momento en que cualquier persona que viera esos programas informativos y que residiera en la localidad de la víctima podía saber a quién se referían, de modo que al daño psicológico inherente a su condición de víctima de los delitos se sumó el daño moral consistente en que se conocieran datos de su vida privada que no había consentido hacer públicos*". Gauzak horrela, DE LAS HERASEk argi adierazten du, kasu honetan intimitaterako eskubidea urratu den arren, ezin dela biktimaren ohore eskubidea urratu dela esan, izan ere, "el mencionado derecho fundamental protege frente al 'desmerecimiento en la consideración ajena' (STC 52/2002, de 25 de febrero, FJ 4). Beraz, kasu honetan ezin dugu esan biktimaren ohore eskubidea urratu denik, izan ere, pertsona bat ustezko delitu egitate batzuen biktima posible gisa identifikatzeak, haren iraina, umiliazioa edo desmerezimendua dakarrenik hirugarrenen aurrean. Ildo beretik, ohorerako eskubidearen balizko urraketa gertatuko litzateke, informazio hori helaraztean, iraingarriak diren adierazpenak erabili izan balira, kasu honetan gertatu ez zen bezala.

informatuak izateko eskubidea dugula, izan ere, “*pues al tratarse de información concerniente a procesos judiciales penales, no solo concurre el interés público en su difusión sino también el interés general, pues el interés público o general de la noticia se considera implícito en cualquier información que afecte a hechos o sucesos de relevancia penal*”.

Gainera, argi dago bai emakumeen kontrako indarkeria bai etxeko indarkeria, gizartean sentsibilizazio berezia duten gaiak direla. Gauzak horrela, Auzitegi Gorenak, informazioaren egiazkotasun printzipioak eta garrantzi publikoaren betekizunak eskatzen du informazio askatasuna gailendu dadin. Hori dela eta, biktimaren datu pertsonalak publikatzeak ez litzateke herritar orok norberaren iritzi publikoa garatzeko duen eskubidearen barne sartuko⁹³.

Bestalde, Auzitegi Gorena ez ezik, Konstituzio Auzitegiak ere, gatazka honi buruzko azalpenak eman ditu, eta horretarako 185/2002ko urriaren 14ko epaia aztertuko dugu. Kasua aztertzen hasi aurretik argi izan behar dugu, komunikabideek edo hirugarren pertsonak delitu baten biktima identifikagarri egiten duen datu edo informazioa argitaratzean, biktimaren intimitatea urratu dezaketela, ez ordea ohorea.

93 Aipagarri AGko 91/2017 otsailaren 15eko epaia: Kasu honek, Zamorako egunkari baten edizio inprimatu eta digitalean argitaratutako erreportaje batean du jatorria, zeinetan aurreko egunean gertaturiko egitate batzuen berri ematen zuen. Era berean, erreportaje horretan, auzi-jartzailea zenak, bere anaiarengandik suzko arma batekin zauritua izan zela adierazi zen, eta ondoren erasotzailea bere buruaz beste egin zuela. Aipatutakoaz gain, artikulua horretan, biktima identifikagarri egiten zuen datuak zabaldu ziren, hala nola, bere izena, bere anaiarena, familiaren bizilekuaren helbide zehatza... Bestalde, egitate hauek, genero indarkeriarekin lotura estua ez duten arren, interesgarri litzateke Auzitegi Gorenak, kasu honetan intimitate eta informazio eskubideei buruz adierazi duena jakitea. Izan ere, adieraziko duguna analogikoki genero indarkeriaren biktimen intimitate eskubideari ere aplikagarri zaio.

Horretarako, DE VERDA Y BEAMONTE, José Ramón: *Libertad de información y derecho a la intimidad de las víctimas. Comentario de la STS (Pleno), núm. 91/2017, de 15 de febrero*, Actualidad jurídica iberoamericana, 2017, 284. orr. eta hurrengoak aztertuko ditugu. DE VERDA Y BEAMONTEren arabera, emakumeen aurkako indarkeria delituetan, biktimaren anonimotasuna errespetatzeko beharra indartu beharra dago 1/2004ko Lege Organikoaren 63. artikulua jarraikiz. Ildo beretik, zenbait delitu, biktimen duintasun eta intimitateari kalte larria egin diezaiekela adierazten du, zeinetan, biktimaren identifikazioa onartezina den. Horren adibide, genero indarkeria kasuak liratezke. Era berean, ez du ukatzen genero indarkeria kasuak interes orokorreko gaiak direnik, baina interes orokor horrek ez lukeela zertan biktimaren identifikazioa ekarri behar azpimarratzen du. Hitzez-hitz honako hau adierazten du: “*yo creo que la víctima tiene derecho a permanecer en el anonimato, salvo que la formación de una opinión pública libre exija sacrificarlo*”. Izan ere, biktima identifikagarri egiten duen datuak publikatzen direnean, herritarren jakin-mina pizteko asmoz egiten dela aipatzen du, horiek ez baitira garrantzitsuak herritarren iritzi publikoa garatzeko.

Konstituzio Auzitegiaren 185/2002ko epai honek, egunkari batek sexu-erasoei buruzko gehiegizko informazioa zabaltzeari buruzko talka aztertzen du. Beraz, biktimaren intimitate eskubidearen eta komunikabideen informazio askatasunaren eskubidearen arteko gatazka izango da azterketaren mamia. Kasu honetan, egunkari batek, gertaturiko sexu eraso bati buruzko erreportajea argitaratu zuen zeinetan ezinbestekoak ez ziren datuak eta informazioa zabaldu zuen. Egunkariak sexu-erasoari buruzko honako informazioa zabaldu zuen: biktimaren bizilekuaren atariko zenbakia, biktimaren izen eta abizenen inzialak eta erasoari buruzko deskribapen nahiko zehatza egin zuen ezinbestekoak ez ziren datuak zabalduz, hala nola, biktima “birjina” zela adierazi zuen.

Honen aurrean, Ministerio Fiskalak eta adingabearen ordezkari prozesalak ez zuten zalantzan jarri, publikatutako egitateen egiazkotasuna; datu intimoen publikazio ezaren beharra baizik. Hauen arabera, gizarteari gertatutako delitu egitateari buruzko berria emateko ez da beharrezkoa biktimaren datu pertsonal horiek argira ateratzea, interes publikoa ez duten heinean.

Gauzak horrela, intimitate eta informazio askatasunaren eskubidearen arteko gatazkari dagokionez, hainbat kasuetan bai Konstituzio Auzitegiak bai Giza Eskubideen Europako Auzitegiak, informazio eskubidearekiko lehentasunezko jarrera erakutsi dute gizartean iritzi publiko aske eta ilustratuaren berme gisa duen funtzio instituzionalaren ondorioz, hots, informazio askatasuna, herritarrak bere iritziak askatasunez osatu ahal izateko eta gai publikoetan parte hartzeko ezinbestekoa den eskubidea dela adierazi dute. Hori dela eta, babes konstituzional berezia jasotzen du, interes orokorreko egiazko gaiei buruzko informazioa emateak. Hala ere, oinarritzko eskubidea izateak (EKko 20.1d) artikulua), ez dio eskubidearen titularrari mugarik gabeko legitimitatea ematen, ez baikara eskubide absolutu batez jarduten ari. Beraz, informazio askatasuna garatzeko legitimatuta dagoenak, gainerako oinarritzko eskubideetan sar daiteke adierazitako helburuarekin bat badator, betiere, abusuz jokatzeko ez badu.

Intimitate eskubideak aitzitik, norbanakoari bizitzaren eremu erresebatu bat bermatzea du helburu, pertsona gisa duen duintasuna errespetatzeareko asmoz (EKko

10.1. artikulua), gainerakoen ekintzaren eta ezagutzaren aurrean, berdin izanik botere publikoak edo partikularrak diren. Beraz, kasu honetan urratutzat salatzen den eskubidea, hots, intimitate eskubidea, absolutua ez den eskubidea da, gainerako eskubideak bezala. Beraz, jurisprudenzialki adierazi bezala, garrantzitsua da EKko 20.1 artikuluan jasotzen den eskubidea mugatzea, besteak beste EKko 18.1 artikuluan jasotako intimitate eskubidea ez urratzeko.

Hau esanda, Konstituzio Auzitegiak⁹⁴ erantzun argia eman zuen: “ (...) *los datos que el reportaje enjuiciado revela sobre la joven agredida, en la medida en que permiten su completa identificación, exceden de cuanto puede tener trascendencia informativa en relación con la agresión sexual y su investigación judicial objeto del trabajo periodístico, y por ello ese contenido concreto de la información (el único que justifica el reproche que ha dado lugar a la condena civil impugnada) no merece la protección constitucional que otorga el art. 20.1 d) CE, tal como estimaron correctamente las Sentencias impugnadas*” (4. OJ).

Esandakoa ondorioztatuz, ezin uka daiteke, interes orokorrekoa dela, delitu larriekin zerikusia duten albisteak argitaratzea, genero indarkeriari buruzko berriak besteak beste. Baina, biktima modu zuzen edo zeharkakoan identifikagarri egiten duten datuak zabaltzen direnean jada ez gaude interes publikokoa den informazioa ematen ari, datu horiek ez baitira beharrezkoak, herritarrak informazioa jasotzeko eskubidea bermatzeko⁹⁵. Hari beretik, Emakunderen txostenak, adierazitakoa berretsi egiten du

94 DE VERDA Y BEAMONTE, José Ramón: *Libertad de información...* zit., 283.orr. DE VERDA Y BEAMONTEk adierazi bezala, genero indarkeria, biktimaren duintasunari kalte larriak eragin diezazkiokeen delituzko egitateak dira. Hori dela eta, komunikabideek genero indarkeria kasu bati buruz, eta horren prozesuari buruzko informazioa ematerako orduan, biktimen anonimotasuna bereziki babestu behar dela nabarmentzen du. Hari beretik, gai honen inguruan, sendotua dagoen doktrina-jurisprudenziala dago, eta KAKo 185/2002ko epaiak hurrengo ondorioztatzen du: “*En modo alguno puede exigirse a nadie que soporte pasivamente la difusión periodística de datos tan relevantes sobre su vida privada cuyo conocimiento es trivial e indiferente para el interés público. Porque es notorio que la identificación de la víctima de la agresión fue, en el sentido más propio de las palabras, irrelevante a efectos de la información que se quiso transmitir (que la persona detenida como supuesto autor de los hechos tras ser identificada por la víctima, negaba la autoría que se le imputaba)*. Laburbilduz, komunikabideek interes orokorrekoa den gai bati buruzko informazioa zabaltzeko eskubidea izan arren, ezin dute biktimaren intimitate eskubidea urratu, ezinbestekoak ez diren datuak publikatuz.

95 KAKo 185/2002 urriaren 14ko epaia (4. OJ): “[...] *En definitiva, los datos que el reportaje enjuiciado revela sobre la joven agredida, en la medida en que permiten su completa identificación, exceden de cuanto puede tener trascendencia informativa en relación con la agresión sexual y su investigación judicial objeto del trabajo periodístico, y por ello ese contenido concreto de la información (el único*

bere 19. eta 20. ondorioetan⁹⁶. Hau da, hedabideek genero indarkeria kasu bati buruz publikatzen duten datu eta informazioaren bidez eraildako emakumea identifikatu badaiteke, ez litzateke informazio askatasunak duen helburua betetzen ariko, hots, gizarte demokratiko batean herritarrei iritzi publiko garatu bat sortzen laguntzea.

Atal honi itxiera emateko, interesgarri litzateke ikerketaren objektuarekin lotura duen azken epai bat aztertzea; alegia, Kordobako 2004ko ekainaren 8ko PAko 120/2004 epaia⁹⁷. Arestian adierazi bezala, eta Auzitegi Gorenak askotan berretsi duen bezala, genero indarkeriari buruzko delituen publikazioak interes publikoa sortzen du gizartean, herritarrek sentsibilizazio bereziko gaitzat jotzen baitute.

Kordobako PAko 120/2004ko epai honek, ez du ukatzen bere senar ohiarengandik erailda izan den emakume baten heriotz bortitzari buruzko albistearen interes orokorra. Albistearekin batera zetorren argazkiari buruz oster, ezin da gauza berdina adierazi, non emakumearen gorpua erdi biluzik ateratzen zen: “(...) *En definitiva no puede estimarse que la difusión de la controvertida fotografía estuviera amparada en un interés público constitucionalmente relevante. (...) y en el caso la de la madre de los actores, semidesnuda, ya cadáver, tendida en el suelo, no era necesaria para, ilustrar el texto de la noticia, y su indebida publicidad o difusión ha incidido directamente en la propia esfera de la personalidad de sus hijos menores de edad y en su derecho a la intimidad familiar*”.

Kasu honetan, argi ikus daiteke, gatazkaren oinarria interes orokorrekoa den gai bati buruzko berria ematean, beharrezkoa ez den informazioa zabaltzen dela (kasu honetan biktimaren gorpua). Egoera honen aurrean, PAk emandako erantzuna argia izan zen⁹⁸, interes orokorreko gertaera bat ezagutarazteko beharrezkoa ez zen informazioztat jo baitzuen. Honek, zeharkako biktimen, hala nola seme-alaben, gurasoen...intimitate eskubidea urratu dezake.

que justifica el reproche que ha dado lugar a la condena civil impugnada) no merece la protección constitucional que otorga el art. 20.1 d) CE [...]”.

96 PORRES GARCÍA, Izaskun eta beste batzuk: *Derecho a la...*, zit., 165.orr.

97 Kordobako PAko 120/2004 ekainaren 8ko epaia. Epai honek bere senar ohiarengandik erailda izan zen emakume baten heriotzari buruz dihardu, zeinetan komunikabideek ez zuten albiste bati eman behar zaion tratamendu egokia eman. Izan ere, interes publikotik at dauden irudiak zabaldu zituzten, hala nola, emakumearen gorpua.

98 PORRES GARCÍA, Izaskun eta beste batzuk: *Derecho a la...*, zit., 98-99.orrk.

Honekin adierazi nahi duguna zera da, intimitate eta informazio eskubideen arteko gatazka ematen den kasu askotan, arazoa ez dela genero indarkeriagatik berri bat publikatzea, baizik eta komunikabideek berri hori publikatzeko duten modua, zeinetan, berria bera interes orokorreko izaera galtzen duen, publikatutako gehiegizko informazioaren ondorioz. Egoera hauetan, komunikabideek herritarren jakin-mina piztea bilatu ohi dute, benetako informazio eskubideak duen helburutik aldentuz.

Zehatzago esanda, komunikabideek biktimari buruzko informazioa eta datuak eman arren, horrek ez du esan nahi argitaratutako ekintzak gezurrak direnik, arazoa da, ez liratekeela biktima zuzenean nahiz zeharka identifikagarri egiten duten datuak argira atera behar, haren intimitate eskubidea urratua gera ez dadin. Beraz, garrantzitsua eta beharrezkoa ez den gehiegizko informazioa emateak ez du informazio-askatasunaren helburua betetzen, gehiegizko datu horiek, biktimaren nortasunaren eskubideak urratu ditzakeelako, gure kasuan aztertzen ari garen intimitate eskubidea esaterako⁹⁹.

1.2 Intimitate eskubidea prozesuko informazio askatasunaren muga gisa

Jakin badakigu, komunikabideek delitu-egitateei buruzko informazioa emateak edo zigor prozesuari buruzko datuak publikatzeak, genero indarkeriaren biktima den emakumearen intimitate eta ohore eskubideak urratu ditzakeela, bigarren mailako biktimizazioa sortuz. Hori dela eta, zenbait kasuetan prozesuaren publikotasun-printzipioa mugatu daiteke, helburuen artean biktimaren nortasunari lotutako oinarrizko eskubideak babesteko.

Lehenik eta behin, biktimaren intimitate eskubidea babesteko, prozesuaren publikotasun-printzipioari ezartzen zaion mugetako bat, “sumarioaren sekretupekotasuna” litzateke; dekretatu daiteke, besteak beste, beharrezkoa denean alderdien eskubideak babesteko¹⁰⁰. Hala ere, horrek ez du esan nahi, komunikabideek ezin dutenik modu zilegian lortutako informaziorik eman. Egia da, askotan komunikabideek prozesuari buruzko informazio ugari publikatzen dutela, sumarioaren

99 BOIX REIG, Javier eta beste batzuk: *La protección jurídica...*, zit., 245 orr.

100 SERRA CRISTÓBAL, Rosario: *Los derechos de...* zit., 219 orr.

sekretupekotasuna deklaratu arren. Horrek, biktimaren intimitate eskubidea urratu dezake beste hainbat ondorioen artean, eta beraz horri mugak jarri behar zaizkio hainbat kasuetan erraza izan ez arren.

Bigarrenik, prozesuaren publikotasunari mugak ezartzeak kasuaren inguruabarretatik eta biktimaren eskubide edo interesak errespetatzeko bermatzen ere, erator daiteke. Genero indarkeria kasuetan, Genero-indarkeriaren aurkako babes integralari buruzko 1/2004 Lege Organikoaren 63.2. artikulua jarraikiz, ahozko epaiketarako entzunaldietarako sarbidea hirugarrenei mugatzeko neurriak¹⁰¹ har daitezke, saioak, atek itxita egitea erabakitzen bada. Horrela, biktimaren intimitatea babestuko da, datu pertsonalak barne, bai eta bere ondorengo edo zaintzapean dauden adingabeen eskubideak ere. Bigarren muga honekin, komunikabideek, prozesuan gertatutakoaren berri zuzena ez ematea litzateke zeharkako helburuetako bat.

Hirugarrenik, prozesuz kanpoko publizitatea egitearen muga litzateke eta neurri hau lotuta dago komunikabideek, berriak askatasunez eman eta jasotzeko duten eskubidearekin. Hau da, komunikabideek informazioa eman eta jasotzeko eskubidea duten arren, lanean zehar adierazi bezala, ezin dute informazioa zabaltzeagatik biktimen eskubideak urratu, intimitate eta ohore eskubidea besteak beste. Genero indarkeria kasuetan, biktimen datu pertsonalak modu zorrotzean errespetatu behar dira, nortasunari lotutako eskubideak ez urratzeko¹⁰². Horretarako, epaileak, biktimaren intimitate eta ohore eskubideak babesteko informazio edo argazkien zabalkuntza debekatu dezake.

Beraz, ezin uka daiteke, babes berezia eskaini behar zaiela benetako ahulezi egoeran dauden biktimei, hala nola, genero indarkeria pairatu duten biktimei, adingabeei, sexu-indarkeria jasan dutenei... Kasu hauetan, hartzen diren neurriak garrantzitsuak dira biktimaren intimitate eta duintasuna modu eraginkorrean babesteko. Beraz, publikotasun printzipioari mugak jartzearen helburuetako bat, genero

101 SERRA CRISTÓBAL, Rosario: *Los derechos de...* zit., 221. orr.

102 1/2004ko Lege Organikoko 63.1 artikulua: "1. En las actuaciones y procedimientos relacionados con la violencia de género se protegerá la intimidad de las víctimas; en especial, sus datos personales, los de sus descendientes y los de cualquier otra persona que esté bajo su guarda o custodia".

indarkeriaren aurkako borrokan eraginkortasun handiagoa lortzea da, baita biktimaren intimitate eskubidea babestu eta horrela bigarren mailako biktimizazioa ekiditeko ere¹⁰³.

Azkenik, aberasgarri litzateke, Konstituzio Auzitegiak, 2015ko uztailaren 23an¹⁰⁴ hartutako erabakia aipatzea, zeinetan jurisdikzio ebazpenak argitaratzean nortasun pertsonaleko datuak baztertzea erregulatzen den. Izan ere, gogora ekarri behar dugu, ebazpenen publikotasunaren bidez ere, biktimaren intimitate eskubidea urratu daitekeela, bigarren mailako biktimizazioa sortuz. Hari beretik, intimitate eskubideak barnebiltzen duen anonimotasunaren edukiak, eta bigarren mailako biktimizazioa ekiditeko betebeharrak, prozesuan parte hartzen duten alderdien nortasunaren datuak zabaltzeko debekua eragiten du.

Horrenbestez, hartutako erabakian adierazi dute genero indarkeriaren ondorioz, eraildako emakume baten anonimotasuna (eta adingabeak diren haren seme-alabena) bermatuko dela konstituzio prozesuan zehar emandako ebazpen judizialean. Hala ere, arestian ikusi bezala, bigarren mailako biktimizazioa komunikabideek publikatutako berrien bidez ere sor daiteke, biktimari kaltea sortuz. Hori dela eta, zentzugabea litzateke prozesu penalean zehar biktimaren intimitatea babestea, aurretiaz hedabideek emandako informazioaren bidez urratua izan bada, biktimaren zuzeneko nahiz zeharkako identifikazioa eraginez. Hots, Konstituzio Auzitegiak hartutako erabaki honek ez du ziurtatzen biktimaren intimitatearen babesa, prozesuari hasiera eman aurretik litekeelako hedabideek publikatutako informazioaren bidez hura urratua egotea.

Laburbilduz, adieraz dezakegu komunikabideek delitu bat, egintza morboso batekin lotzearekin duten ohitura aldatu beharra dutela, eta arreta biktimaren babesean jarri. Izan ere, ikusi dugun bezala, pertsona bati buruzko material edo albiste jakin batzuk zabaltzeak biktimaren intimitate eskubidea urratzeko arriskua dakar, bigarren mailako biktimizazioa sustatzearekin batera.

103 BOIX REIG, Javier: *La protección jurídica...* zit.,254 orr.

104 Espainia. 2015eko uztailaren 23ko Konstituzio Auzitegiaren Osoko Bilkuraren erabakia, jurisdikzio ebazpenak argitaratzean nortasun pertsonaleko datuak baztertzea erregulatzen duena.

1.3 Genero indarkeriaren ondorioz eraildako biktimen seme-alaben intimitate eskubidea

Genero indarkeriaren ondorioz eraildako emakume baten seme-alaben intimitate eskubideaz jardutean, zertaz ari garen jakiteko errealia ez den kasu bat hartuko dugu oinarri: “Senarrak bere emaztea akabatzen du bere seme adingabearen aurrean. Adin nagusiko beste semea etxera heltzen denean, bere ama hilda aurkitzen du¹⁰⁵”. Adierazitakoa, errealitatean ohikoa den egoera mota da, eta askotan eraildako emakumearen eskubideak ez ezik, haren familia-kideen (bereziki seme-alabak) eskubideak, hala nola intimitatea babestea ahazten dute komunikabideak.

Gauzak horrela, oinarri gisa jarri dugun ereduan, alde batetik, 1/2004ko Lege Organikoa jarraikiz, biktima zuzenak diren bi pertsona izango genituzke, hots, erailda izan den emakumea eta adingabea den semea. Bestalde, adin nagusiko semea, zeharkako biktima litzateke, 4/2015eko Lege Organikoaren arabera. Hala ere, 4/2015eko Lege Organikoak hiru biktimei aitortzen die intimitate eskubidearen titularrak izateko eskubidea, horrela berresten baitu bere 22. artikulua¹⁰⁶.

Konstituzio Auzitegiak hainbat epaietan berretsi duen bezala (horren adibide, 231/1988 epaia delarik¹⁰⁷), EKko 18. artikulua jasotzen dituen oinarritzko eskubideak, nortasunari lotutako eskubideak diren heinean, eskubide horien titularra hilda dagoen kasuetan ez litzateke babestu beharreko oinarritzko eskubiderik egongo. Hala ere, Konstituzio Auzitegiak, erabat onartzen du komunikabideek berriari ematen dioten trataeraren arabera, hildako pertsonaren senideen intimitatea eta bestelako eskubideak urratu ditzakeela: *“ciertos eventos que puedan ocurrir a padres, cónyuges o hijos tienen, normalmente, y dentro de las pautas culturales de nuestra sociedad, tal trascendencia para el individuo, que su indebida publicidad o difusión incide*

105 PORRES GARCÍA, Izaskun eta beste batzuk: *Derecho a la intimidad de víctimas de delitos de violencia de género. Derecho al anonimato de las víctimas. Abstract.* 5. orr.

106 Ikusi 4/2015eko Lege Organikoko 22. art.

107 KAKo 231/1988 abenduaren 2ko epaia: “[...] Una vez fallecido el titular de esos derechos, y extinguida su personalidad, -según determina el art. 32 del Código Civil: «La personalidad civil se extingue por la muerte de las personas»- lógicamente desaparece también el mismo objeto de la protección constitucional, que está encaminada a garantizar, como dijimos, un ámbito vital reservado, que con la muerte deviene inexistente.[...]”.

directamente en la propia esfera de su personalidad. Por lo que existe al respecto un derecho -propio, y no ajeno- a la intimidad, constitucionalmente protegible.”

Esandakoa genero indarkeriaren eremura ekarriz gero, eraildako emakumearen senideen intimitate eskubidea egongo litzateke jokoan. Hau da, genero indarkeriaren ondorioz, erailda izan den emakumearen heriotzaren publizitate edo hedapena, haren senideen intimitate eskubideari eragin diezaike. Beraz, gaur egun, biktimaren senideak, zeharkako biktimak diren heinean, eskubidea izango dute euren intimitate eskubidea babestua gera dadin, hedabideek emandako gehiegizko informaziotik at. Ondorio gisa, hasierako supostua kontuan izanik, seme-alaben (biktima zuzena zein zeharkakoa) nortasunaren eremuan eragina izan dezakeen informazio eta datu oro, ez lirateke argira atera behar, hauen intimitate eta ohore eskubideak babespean geldituz.

2. Ohore eskubidea eta informazio askatasuna

Ohore eskubideari dagokionez, arestian adierazi bezala, pertsonaren izen onarekin lotura duen kontzeptua da; beraz, Espainiar Konstituzioak ohore eskubideari babesa emanaz hirugarrenek norberari buruzko merezigabeko iritzi desagokiak ekidin nahi ditu. Gaur egun, komunikabideek genero indarkeriari buruzko berriak argitaratzen dituztenean, biktimaren intimitate eskubidea errazago urratu dezaketen eskubidea izan arren, horrek ez du esan nahi, haren ohorea kaltetzen ez dutenik, askotan ikusi ez arren. Jarraian aztertuko dugun bezala, zenbait kasuetan, informazio askatasunak, ohore eskubidea mugatu dezakeen arren, orokorki, albiste baten egiazkotasuna da ohore eskubidearen urraketa egon den edo ez adieraziko duena.

2.1 Ohore eskubidearen eta informazio askatasunaren arteko gatazka

Pertsona baten bizitzari buruzko informazio edo datuak zabaltzen direnean, intimitate eskubideaz baino ohore eskubideari buruz hitz egiten egongo ginateke. Hala ere, egia da pertsona baten bizitza pribatuari buruzko informazioa jakiteak, biktimaren

intimitate eskubidea urratu dezakeela, eta gerora, informazio horren publikotasunak haren ohorea.

Alde batetik, zenbaiten ustez egiazko informazioa legezko bitartekoen bidez eskuratzeak, ez du ohore eskubidea urratzen, hots, hedabide batek emandako informazioa egiazkotasun izaera badu, ohore eskubidearen urraketa ez dagoela adierazi nahi du. Bestalde, bada esaten dutenak, berria bakarrik publikatu daitekeela, pertsonaren ohorea urratzen ez duen kasuetan. Hau da, publikatzen den informazioak ezin du pertsonaren izen ona edo ospea urratu¹⁰⁸.

Delitu-egitatei buruzko informazioa emateari dagokionez, Auzitegi Konstituzionalak¹⁰⁹ ulertu du, ezin dela ohore eskubidea urratutzat eman, delitu baten biktima izan den identitatea zabaltzean, haren intimitate eskubidea urratu daitekeen arren. Informazio askatasunaren bidez, ohorerako eskubidea urratuko litzateke, biktimaren informazioa zabaltzean harekiko iraingarriak edo umiliagarriak diren adierazpenak erabili izan balira, izan ere, ez litzateke, EKko 20.1d) artikulua babestutako eskubidearen barne sartuko. Beraz, informazioaren egiazkotasuna alde batera utzita, iraingarria edo desegokia izan daitekeen informazioa, ez da EKko 20.1d) artikulua barne sartuko, horrek biktimaren ohore eskubidea urratzen baitu.

2.2 Ohore eskubidea babesteko informazioa eskuratzeko mugak

Jakin badakigu, jurisprudenziak, ohorearen nolakotasunak taxutuz joan izanaren kausa nagusia, maila bereko oinarritzko eskubide biren arteko gatazka dela, ohore (EKko 18.1 art.) eta informaziorako eskubidearen (EKko 20.1d) art.) arteko gatazka alegia. Era

108 BOIX REIG, Javier: *La protección jurídica ...*, zit.,251.orr.

109 KAKo 204/2001 urriaren 15eko epaia (4. OJ): Ohore eskubidea urratutzat eman daitekeen kasuei buruz, honako hau adierazten du Konstituzio Auzitegiak: “[...] *No cabe duda de que la emisión de apelativos formalmente injuriosos en cualquier contexto, e innecesarios para la labor informativa o de formación de la opinión que se realice, supone inferir una lesión injustificada a la dignidad de las personas (fundamento del orden político y de la paz social, como solemnemente proclama el art. 10.1 CE) o al prestigio de las instituciones. Pues, ciertamente, una cosa es efectuar una evaluación personal, por desfavorable que sea, de una conducta, y otra cosa muy distinta emitir expresiones, afirmaciones o calificativos claramente vejatorios desvinculados de esa información y que resultan proferidos, gratuitamente, sin justificación alguna, en cuyo caso cabe que nos hallemos ante una mera descalificación o incluso un insulto proferidos sin la menor relación con el propósito de contribuir a formar una opinión pública libre[...]*”.

berean, konstituzionalki maila berean dauden eskubideak izanda gatazka honi eman dakioken erantzuna ez da erreza. Hori dela eta, doktrina jurisprudentzialak, hots, bai Auzitegi Konstituzionalak bai Auzitegi Gorenak, “lehentasunezko jarrera” deituriko doktrina aplikatzeko erabakia hartu dute¹¹⁰.

Doktrina jurisprudentziala jarraikiz, lehenetsi beharreko eskubidea zein den jakiteko interesen hastapenari begiratu behar zaio. Ondorioz, argi adierazi dute, kasuz kasu hartu beharreko erabakia dela, ezin baita muga zehatzik jarri bi eskubideen arteko gatazka konpontzeko modutzat. Gauzak horrela, aipatutako oinarritzko bi eskubideen arteko gatazkaren aurrean, informazio askatasunak, ohore-eskubidea gailentzen du, ematen den informazioa interes publikokoa izateaz gain, egiazkoa denean¹¹¹. Ildo beretik, albisteak ezingo du gaintitu informatzeak duen helburua, ñabardura iraingarri edo neurrigabeak emanez.

Esandako laburbilduz, ikus dezakegu, intimitate eskubidearekin gertatzen ez den bezala, ez dagoela genero indarkeriaren biktimen ohore eskubidearen inguruko garapen zabalik. Beraz, jakin behar da, zenbaitetan komunikabideek, genero indarkeriaren biktimen ohore eskubidea urratu dezaketela, informazioa ematerako orduan, biktimaren osperei eragin diezaioketen adierazpen iraingarri edo laidogarriak erabiltzen dituztenean eta zabaldutako informazioa interes publikokoa edo egiazkoa ez denean.

3. Intimitate eta ohore eskubideetan bidegabeki sartzeagatik hartu daitezkeen neurriak¹¹²

Maiatzaren 5eko 1/1982 LOaren 9.2 artikulua, ohore, intimitate edo norberaren irudirako eskubidean esku-sartze ez-zilegi baten aurrean, herritar orok eska dezakeen babes judizialari buruz dihardu. Hainbat dira, artikulua honek jasotzen duen babes

110 DE VERDA Y BEAMONTE, José Ramón (koord.): *Veinticinco años de...*, zit., 48. eta 49. orrk.

111 DE VERDA Y BEAMONTE, José Ramón: *Los Derechos al honor, a la intimidad y a la propia imagen como límites del ejercicio de los derechos fundamentales de información y expresión: ¿Una nueva sensibilidad de los tribunales?*, Valentzia, 2015, 391-392. orrk.

112 ATIENZA NAVARRO, María Luisa: *Algunas cuestiones acerca de la responsabilidad civil por los daños al honor, a la intimidad y a la propia imagen*, “Veinticinco años de aplicación de la Ley Orgánica 1/1982, de 5 de mayo, de protección civil del derecho al honor, a la intimidad personal y familiar y a la propia imagen”, Thomson Aranzadi S.A, Cizur Menor, 2007, 281-282. orrk.

judzialaren helburuak, horien artean, bidegabeko esku-sartzeari amaiera emateko beharrezko neurriak hartzea edo kalte-dunari bere eskubideen erabateko gozamina berraztertu eta geroagoko intromisioak eragozteko neurriak hartzea litzateke. Ildo beretik, neurri horien artean, esku-sartze ilegitimoa eteteko kautela-neurriak har daitezke, baita epaia zabaldu eta kalte-galerak ordaintzera kondenatzeko, erreplikatzeko eskubidea aitortu ere.

Beraz, bi dira esku-sartze ez-zilegiarekin amaitzeko har daitezkeen neurriak:

1.- Kaltea eteteko, ez hedatzeko edo ekiditeko neurriak: Horien artean, esku-sartze ilegitimoarekin amaitzeko bideratutako akzioak aurki daitezke, bai eta kautelazko edozein neurri ere, hala nola, komunikabideak ixtea edo bahitzea.

2.- Kaltea ordaintzeko eginkizuna dutenak: Alde batetik, epaiaren hedapenaren bidez eta erreplika eginez lortzen den berariazko ordaina dugu (ordainketa espezifiko) eta beste aldetik, kalte-galeren ondorioz, kalte-ordainaren bidez lortutako ordaina dugu (ordainketa generikoa).

Hau esanda, ez zaie kalte-ordainik gabeko neurriei garrantzirik kendu behar, are gehiago, biktimari kalte-ordaina aitortuko zaio kaltea eten eta ekiditeko inhibizio-babesa nahikoa izan ez denean, hau da, kaltea berariazko ordainaren bidez osorik konpontzea ezinezkoa den kasuetan (hots, epaia zabalduz, edo erantzun eta zuzentzeko eskubideaz baliatuz). Aipatutakoaz gain, ohore eta intimitate eskubideak zibilki erreparatzeko beharra ere agertu behar da.

Gauzak horrela, indemnizatzea helburu ez duten neurriak garrantzitsuak diren arren, gaur egun, Auzitegiek bidegabeko esku-sartzea hautematen duten kasuetan kalte-ordaina emateko joera dute, kalte-ordain akzioen helburua erasotako nortasunaren eskubidea defendatzea eta horiek berrezartzea ez izan arren. Hauen helburu bakarra, sortutako kalteagatik indemnizazioa ematea baita.

Esandakoa jarraikiz, 1/1982ko LOaren 9.3 artikulua, kalte-ordainaren zenbatekoa zehazteko zenbait irizpide ezartzen ditu, eta horien artean, kasuaren

inguruabarrak eta bidegabeko esku-sartzeak sortutako lesioa (kaltearen larritasuna) aurkitzen dira. Horretarako, kontuan hartuko da, hala badagokio, sartu den bitartekoaren hedapena edo ikusleria, bai eta kaltearen eragileak haren ondorioz lortu duen onura ere¹¹³. Hala ere, zenbatekoa ezartzeko irizpideak kritika anitz jaso ditu, askotan ezinezkoa baita hauen bitartez kalte-galeraren ordaina zehaztea.

Aipatutakoaren adibide gisa, AGko 661/2016ko epaia dugu. Kasu honetan, arestian adierazi bezala, genero indarkeriaren biktima zen emakumeak, telebista kate baten aurka demanda jarri zuen genero indarkeria biktima gisa alderdi zen ahozko epaiketaren grabazioa albisteetan publikatzeagatik. Telebista kateak, albistean bertan, bera identifikagarri egiten zuen irudia publikatzeaz gain, hainbat datu eman zituen emakumea indibidualizatzea posible egiten zutenak. Horrek, beste eskubideen artean, bere intimitate eskubidearen urraketa ekarri zuen.

Gauzak horrela, biktimak, telebista kateak bere intimitate eskubidea urratu zuela argudiatuz, sortutako kalte moralak konpontzeko asmoz, 100.000 euroko kalte-ordaina eskatu zuen. Honen aurrean, Auzitegi Gorenak, 1/1982ko LOko 9.3 artikulua aipatzen dituen irizpideak, hots, kasuaren inguruabarrak eta lesioaren larritasuna (urraketa zein hedabideen bidez eman den ere kontuan izan behar da) oinarri hartuz, onartu egin zuen demandatzaileak eskatutako kalte-ordaina, nahiz eta eskatutakoaren kantitatea gutxitu.

Ondorio gisa, esan daiteke genero indarkeria kasuetan, hots, biktimaren intimitate eta ohore eskubideak urratuak izan diren kasuetan, diruzko ordaina dela kalte moralak konpontzeko bide nagusia, eta orokorrean bai Auzitegi Gorenak bai Konstituzio Auzitegiak hartzen duen bidea da. Hala ere, erantzukizun zibilaren ikuspegitik garrantzi handiagoa eman beharko litzaieke arestian aipatutako kalte-ordain izaera ez duten neurriei.

113 GARCÍA GARCÍA, Clemente eta beste batzuk.: *Colisión entre el derecho a la intimidad y el derecho a la información y opinión . Su protección jurídica*. Imprenta Belmar S.A, Murtzia, 1994, 95.orr.

V. GENERO INDARKERIAREN BIKTIMEN INTIMITATE ESKUBIDEA SARE SOZIALETAN

Sare sozialak azken urteetan hazkunde handia izan duten Internet bidezko *onlineko* plataformak dira. Ildo beretik, ezin uka daiteke, gizarte sareek aldaketa esanguratsua eragin dutela, baina askotan norberari buruzko hainbeste informazio pribatu partekatzen dugu ezen gizarte sareak modu arriskutsuan erabiltzen ditugun, gure intimitaterako eskubidea arriskuan jarriz.

Gaur egun, Zigor Kodeak¹¹⁴ jasotako hainbat delitu eman daitezke espazio digitalaren barruan. Horien artean, ezagunetarikoa ziberjazarpena litzateke eta genero-indarkeria agertzeko modutzat har daiteke, maskulinitasun hegemonikoaren¹¹⁵ eredu nagusitasunaren ondorioz. Beraz, ukazina da IKTren eta beraz, sare sozialen erabilera, nabarmenki sustatzen eta handitzen dutela emakumea kontrolatzeko aukera, eta horrek ondorio larriak ekar ditzake.

Arazoa da, genero indarkeria digitala osatzen duten portaerek gero eta gehiago izateaz gain, “normaltzat” hartzen diren egoerak direla bereziki nerabeen artean, eta horren adibide, informazio edo argazki pribatuen elkartrukea da. Portaera horien artean, genero indarkeriaren biktima den intimitatea urratu dezaketenak, sexu jazarpena (sexting) edo biktimaren sare sozial edo kontuen pasahitza lapurtzea lirateke.

Bestalde, azken urteetan, sare sozialek gizon eta emakumeak elkarrekin erlazionatzeko modua aldatu dutela ukazina da. Hari beretik, *onlineko* esparru hauetan norberaren bizitza pribatua erakutsi ohi da, eta horrek emakumeen aurkako indarkeria, kontrol modu berriak eta harreman-afektibo sexual berrien sustapena eragin du¹¹⁶.

114 Espainia. Azaroaren 23ko 10/1995ko Lege Organikoa, Zigor Kodeari buruzkoa.

115 RUIZ REPULLO, Carmen: *Voces tras los datos. Una mirada cualitativa a la violencia de género en adolescentes*, 2016, 42-45 orrk.: Badinterren arabera (1993), maskulinitasuna frogatu egin behar da, ez baita nahiko maskulinitatea edukitzea edo izatearekin bakarrik. Logika horri jarraiki, maskulinitasun hegemonikoa, funtsezko bi alderdiren frogapenean oinarritzen da: emakume ez izatea eta homosexuala ez izatea, hau da, zerbaiten aurka egotea.

116 VERDEJO ESPINOSA, Maria Ángeles: *Ciberacoso y violencia de género en redes sociales*, Andaluzia, 2015, 148.orr. eta hurrengoak.

Ziberjazarpena, genero indarkeria modu gisa aztertuz gero, biktima den emakumeak bere bikotekidearen edo bikotekide ohiarengandik eraso psikologikoak jasotzen dituenean litzateke, iraunkorra eta denboran zehar irauten duena. Gaur egun, “maitasun erromantikoaren¹¹⁷” mito faltsuaren babespean ematen dira eta honen ondorioz, mugak gainditzen dituzten muturreko kontroleko portaerak normalizatu dira. Indarkeria mota hau, teknologia berriak edo sare sozialak erabiliz ematen da, hala nola, WhatsApp, Facebook, Instagram... bezalakoak. Honen helburua, biktima menderatu, diskriminatu eta botere-posizioaz abusatzea litzateke, biktimaren eskubideak urratuz, hala nola, intimitate eskubidea¹¹⁸.

Bestalde, harremana mozten den zenbait kasuetan, genero indarkeria sufritzen duen emakumearen intimitate eta ohore eskubideak arriskuan egon daitezke, erasotzaileak, biktimaren baimenik gabeko irudi intimoak publikatzeko mehatxuen edo biktimaren segurtasuna kolokan jartzen duten jokabide intrusiboen aurrean¹¹⁹ esaterako (hala nola etengabeko deiak, ohiko orduetatik at). Bereziki, nerabe eta gazteen arteko harremanetan maiz ikusten dira, genero indarkeriaren zeinu diren egintzak, biktimak diren emakumeek kontziente izan ez arren.

Gauzak horrela, eduki teorikoa errealitatera hurbiltzeko, Sestaoko Ertzain-etxean praktiketan ikusitako kasu erreal baten aipamena egitea litzateke interesgarri. Kasuaren testuinguruari dagokionez, biktima eta bere erasotzailea, sare sozialen bidez ezagutu zuten elkar, sentimenduzko harremana sortuz. Hala ere, denbora igaro ahala, salatzaileak sentimenduzko harremana amaitutzat jotzea erabaki zuen. Ildo beretik, erasotzaileak, biktima bakean uzteko eskariei jaramonik egin gabe, biktimarekin behin eta berriz kontaktuan jartzeko etengabeko saiakerak egin zituen. Hori dela eta, biktimak jasotzen zituen etengabeko mezuen aurrean, salaketa jarri behar izan zuen. Azken jazarpena, Instagram izeneko sare sozialaren bidez izan zen zeinetan erasotzaileak profil faltsua sortu zuen, biktimaren bizilagun bat zela adieraziz.

117 Maitasun erromantikoaren inguruan, ikusi, RUBIO-GARAY, Fernando eta beste batzuk: *Factores asociados a la violencia en el noviazgo entre adolescentes: una revisión crítica*. Anuario de psicología jurídica, 2015, 47-56. orrk.

118 TORRES ALBERO, Cristobal (Dir) eta beste batzuk: *El ciberacoso como forma de ejercer la violencia de género en la juventud*, 2013. 4. orr.

119 Ikusi ZKko 172 ter artikulua

Horrelako egoerek, baieztatzen dute sare sozialek duten boterea, eta beraz, genero indarkeria kasu gehiago sustatu ditzaketela. Izan ere, hauen bidez gizonen emakumearenganako kontrol handiagoa bereganatzeko aukera dute, askotan ziberjazarpenean amaitu daitekeena. Kasu honetan aztertu dugunez, erasotzaileak, emakumeari etengabe mezuak bidaltzeko ahaleginak egiten zituen, askotan mehatxuzko edukia zutenak.

Hala ere, arazoa bereziki nerabe eta gazteen artean sortzen da, ziberindarkeriatzat har daitezkeen egoerak normalizatzen baitituzte. Ildo beretik, gazte askok ziberjazarpena jasan dezakete, baina horri buruz duten pertzepzioa hain txikia da, ezen ez duten arazoa identifikatzen, egoera txarragotuz¹²⁰. Hori dela eta, oso garrantzitsua da sare sozialen erabilera egokia egitea eta beraz ziberindarkeria eragin dezaketen jokaerak ez normalizatzea.

Bestalde, Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritzak, 2013. urtean ikerketa enpiriko-kualitatiboa egin zuen, bikote-harremanetan ziberjazarpena¹²¹ pairatu zuten 18-29 urte arteko gazteen artean elkarrizketak eginez. Intimitate eskubidez gain, beste zenbait eskubide urratu daitezkeen arren, hala nola, ohore eskubidea, datu pertsonalen babesa, irudirako eskubidea... ikerketa honen helburu nagusienetariko bat intimitate eskubidea aztertzea da. Hori dela eta, intimitate eskubidearen urraketari lotuta, honako ondorio hauek aipatu ditzakegu¹²²:

-Lehenik, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren aurkako indarkeria erabiltzeko ziberjazarpena biktimaren gaineko askatasuna, menderatzea eta botere desberdintasuna mugatzeko modu bat dela ondorioztatu da, eta horrek biktimaren intimitate eskubideari eragin diezaioke, estrategia iraingarriak erabiliz.

120 VERDEJO ESPINOSA, Maria Ángeles.(2015). *Ciberacoso y violencia...*,zit., 150.orr. eta hurrengoak

121 VERDEJO ESPINOSA, Maria Ángeles: *Ciberacoso y violencia...*,zit. 151. orr. VERDEJO ESPINOSAK adierazi bezala: “*La ciberviolencia de Género tiene un carácter dinámico, veloz, de conectividad (se puede dar 24 al día, todos los días: carácter permanente) y a veces, de mayor impunidad del acosador; porque es más fácil utilizar una identidad falsa; que implica una mayor dificultad, que la violencia de género offline, para escapar de él: no hay tranquilidad, ni momentos de respiro, no se siente segura en ningún sitio, ya que entra, hasta en el propio dormitorio de la víctima; aumentando el desasosiego, la ansiedad, los síntomas de estrés en las mujeres adolescentes/ jóvenes en situación de víctimas*”.

122 Ondorio guztiak ikusi ahal izateko: VERDEJO ESPINOSA, Maria Ángeles: *Ciberacoso y violencia...*,zit., 149-155 orrk..

-Bigarrenik, ziberjazarpena normalean kontaktu fisikorik izan gabe ematen den indarkeria izan arren, mezuak edo bestelako eskaerak behin eta berriz bidaltzeak, biktimaren intimitate eskubidea urratzea dakar.

-Hirugarrenik, erasotzaileek, eduki sexualeko biktimaren argazkiak edo bestelako informazioa zabaldu dezakete Interneten bidez, genero indarkeria jasan duen biktimaren intimitaterako eskubidea urratuz.

-Laugarrenik, eskubidearen urraketa biktimaren izenean, profil edo espazio faltsuak sortuz ere eman daiteke, zeinetan informazio pertsonala edo eskaintza sexualak egiten dituen etab.

-Azkenik, telefono edo kamera bidez buruturiko grabazioak Interneten zabaltzeak, zeinetan biktimaren kontrako erasoak ikusten diren, intimitate eskubidean eragina izateaz gain, ohore eskubidean ere eragin dezakete.

Gauzak horrela, hirugarren ondorioan sakonduz, Sestaoko Ertzain-etxean aztertutako bigarren kasu bat aipatzea litzateke interesgarri. Kasu honetan, biktimaren lagun batek, mezu bat bidali zion salatzaileari esanez, bere bikotekide ohiak berarekin ziren hiru argazki biluzik igo zituela Instagram deituriko sare sozialera. Une horretan bertan, emakumea sarera sartu eta hiru argazki horien existentzia egiaztatu zuen, konturatuz hiru argazki horiek bere bikotekide ohiak atera zizkiola haien arteko harremana oraindik indarrean zegoen bitartean¹²³.

Ondorio gisa, ezin uka daiteke, intimitate pertsonalaren barne, pertsonaren bizitza sexuala dagoela, bai bere alderdi fisikoari bai dimentsio psikologiko/sentimentalari dagokionez. Hori dela eta, pertsona batek beste baten irudi sexualak haren baimenik gabe zabaltzeak, beste eskubide batzuekin batera, pertsonaren intimitate eskubidearen urraketa suposatzen duela adierazi daiteke, kasu honetan gertatzen den bezala, izan ere, hirugarrenen jakin-minetik kanpo egon behar litzatekeen edukiaz ari gara¹²⁴.

123 RUIZ REPULLO, Carmen: *Voces tras los... zit.*, 62. orr. REPULLOk adierazi bezala. “*El control ejercido por las parejas, los celos, la prohibición de estar en redes sociales, la prohibición de tener en las redes sociales a determinadas amistades, así como el traspaso de contraseñas como muestra de amor y confianza, son algunos ejemplos de maltrato*”. Emakume asko dira esaterako euren sare sozialen pasahitzak haien bikoteei luzatzen dizkietenak. Era berean, gaur egun horrelako ekintzak normalizatu arren, genero indarkeria sustatzeko moduak dira.

124 MARTÍNEZ OTERO, Juan María: *La difusión de sexting sin consentimiento del protagonista: un análisis jurídico*, Derecom, Madril, 2013, 4. orr.

Horren haritik, eduki sexualeko argazki edo bideoak publikatzeak biktimaren ohore eskubidea urratzen duen edo ez jakiteko, beharrezkoa da irudi/bideoen eduki zehatza baloratzea, baita horien hedapena protagonistaren autoestimuan edo ospean izan dezakeen eragina ere. Hala ere, gizartean dauden baloreak kontuan hartuz, ohikoa izaten da eduki sexuala duen materiala zabaltzean pertsonaren ohore eskubidea urratzea, gutxienez dimentsio objektiboan, hots, biktimaren irudi publiko, ospe edo gizarte kontsiderazioari dagokionez.

Azkenik ikuspegi zibiletik, biktimaren baimenik gabe argazkiak hedatzea, legez kontrakoa da, horrela adierazten baitu, Ohorerako, Intimitaterako eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilar buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoaren 7. artikulua. Gauzak horrela, jokabide honek aldi berean EKko 18.1 artikulua jasotzen dituen oinarrizko hiru eskubideak urratzen ditu (intimitate, ohore eta irudirako eskubidea), intimitate eskubideari kalte larriena sortuz. Era berean, konponketa biderik ohikoena ekonomikoa izango da, eta kalte-ordainaren zenbatekoa, irudien izaera eta zabalkundearen arabera izango da¹²⁵.

125 MARTÍNEZ OTERO, Juan María: *La difusión de...* zit. 14. orr.

VI. ONDORIOAK

Jarraian, lanari itxiera emateko, aztertutakoaren bost ondorio nagusi aipatzeaz gain, ondorio orokor gisa, egokia litzateke adieraztea, genero indarkeriaren biktimen ohore eta intimitate eskubideei, Espainiar Konstituzioak bere 18. artikuluan jasotako oinarritzko eskubideak diren heinean, babes osoagoa bermatu beharko litzatekeela.

1.- Hasteko, adierazi dezakegu 1/2004ko Lege Organikoak, genero indarkeriari buruz jasotzen duen definizioa oinarri hartu arren, garrantzitsua litzatekeela, Espainiak, Istanbulko Hitzarmenak genero indarkeria arautzen duen bezala arautuko balu. Hau da, 1/2004ko Lege Organikoaren ondorioetarako, genero indarkeria, gizonek emakumeen aurka erabiltzen duten indarkeria mota da, eta honek barne hartzen ditu, emakumearen aurkako indarkeria fisiko eta psikologiko oro. Horretaz gain, subjektuen artean nolabaiteko harreman afektiboa egon izana eskatzen du (ezkongaiak, bikotea...), nahiz eta beraien artean bizikidetzarik ez egon.

Nire aburuz, definizio horrek larriki mugatzen du genero indarkeriaren biktimatza har daitezkeen emakumeak, genero indarkeria ez baita arestian adierazi bezala, eremu pribatura bakarrik mugatzen den indarkeria mota, eremu publikoan ere ematen baita. Horregatik, Espainian hartu beharko litzatekeen erabakietako bat, Istanbulko Hitzarmenak jasotzen duen definizioa ezartzea litzateke: *“Por «violencia contra la mujer por razones de género» se entenderá toda violencia contra una mujer porque es una mujer o que afecte a las mujeres de manera desproporcionada¹²⁶”*.

Gauzak horrela, Istanbulko Hitzarmenak, 1/2004ko Lege Organikoak jasotzen duen terminologiarekin alderatuz gero, honek ez du ezartzen genero indarkeria bikotearen esparruan emandako indarkeria izan behar duenik, baizik eta gizon batek emakume baten aurkako indarkeriatzat jotzen dute emakume hutsa izateagatik. Beste era batera esanda, genero indarkeria, gizarte orotan ematen den indarkeria mota da,

126 Europako Kontseiluaren Hitzarmenaren berrespen agiria, Emakumearen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren aurkako prebentzio eta borrokari buruzkoa, Istanbulen, 2001ko maiatzaren 11an egina, 3. art.

zeinetan emakumeek gizonengandik, emakume izateagatik jasan behar duten indarkeria den. Era berean, betidanik gizarte patriarkal batean bizi izan garenez, ezin uka daiteke, egon diren eta dauden botere-harremanek areagotu egin dutela genero indarkeria kasuak.

Beraz, jakin Istanbulleko Hitzarmena, European emakumeen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren eremuan izaera loteslea duen lehen tresnetako bat izateaz gain, giza eskubideen urraketa larri honi aurre egiteko irismen handiko Nazioarteko Hitzarmena izan dela. Honek, emakumeen aurkako indarkeria kasuetan tolerantziarik onartzen ez duenez, garrantzi handia dauka Espainiak bere legeria Istanbulleko Hitzarmenak jasotzen duenera egokitzea.

2.- Bigarrenik, ikerketa lan honetan garrantzitsua izan den genero indarkeriaren biktimen ohore eta intimitate eskubideen eta komunikabideen informazio askatasunaren arteko gatazkari dagokionez, hierarkikoki maila berean dauden eskubideak izan arren, biktimaren ohore eta intimitatea hobeto babestu beharko liratezkeen eskubideak dira. Ez dugu ahaztu behar nortasunari lotutako eskubideez ari garela, eta beraz, behin hauen urraketa emanda zaila dela lehengo egoerara ondoriorik gabe bueltatzea. Hori gutxi balitz, askotan eskubide hauen urraketak, bigarren mailako biktimizazioa ere eragin dezakete, biktimaren senideen eremura ere zabaldu daitekeena.

Ezin uka daiteke, komunikabideek prozesu penal batean gertatutakoaren berri ematen dutenean, ez dutela gertakari berriak helarazteko xedez bakarrik egiten; horrekin batera, plurala eta askea den iritzi publikoa sustatzea baitute helburu, baita bigarren plano batean auzitegi eta sistema judizialean konfiantzari eusteko laguntza ematea ere¹²⁷. Hala ere, ikusi dugun bezala, informazio askatasunaren erabilera okerrak kalteak eragin diezazkioke genero indarkeria den biktimaren ohore eta intimitate eskubideei.

Hala ere, emakumearen aurkako indarkeria delitu baten aurrean gaudenean, gertakariei buruzko egiazkoa eta profesionala den tratamendua eman arren, informazioa helarazteko moduak kalte konponezinak eragin ditzake biktimaren oinarrizko

127 SERRA CRISTÓBAL, Rosario: *Los derechos de...* zit., 225-227 orrk.

eskubideetan, ohore eta intimitate eskubideetan bestean beste. Izan ere, ohituta gaude eremu judizialean dokumentatuegiak ez dauden kazetariak emandako informazioa jasotzera, hots, zenbaitetan sumarioaren sekretupean egon daitezkeen datuak ezagutzera, akatsak dituzten edo errealitatea gehiegi sinplifikatzen duten berriak ezagutzera, eta beraz, kasu bati buruzko gehiegizko informazioa jakitera. Kasu hauetan, informazio askatasunak duen xedetik aldentzeaz gain, biktimaren intimitate eta ohore eskubideak kaltetu ditzakete.

Beraz, informazio askatasunak biktimaren intimitateari, bizitza pribatuari, ohore eskubideei kalte eragin dakiekeenean, erantzuna erreza izan beharko luke, hots, biktimaren intimitate eta ohore eskubideen babesa gailendu eta egoki babesteko mekanismoak garatu beharko liratezke. Izan ere, eskubide horien oinarria norbanakoaren duintasuna dago. Hori dela eta, herritarrek informazioa jasotzeko eskubidea izan arren, informazio askatasunaren eskubidea mugatu beharko litzateke, onartezina baita askotan komunikabideek ematen duten gehiegizko informazioa. Gehiegizko informazioa ematen den kasu gehienetan, ikusleriaren arreta bereganatzeko xedez egiten dute, iritzi publikoa sortzetik urrun. Beraz, biktima identifikagarri egiten duten datuak publikatzen dituzten hedabideek zigor latza izan beharko lukete, izan ere, behin biktimaren intimitatea urratzen denean zaila da aurreko egoerara bueltatzea, kaltea jadanik eginda dagoelako.

3.- Hirugarrenik, sare sozialek azken urteetan izandako gorakada kontuan izanik, mundu digitalean ematen den genero indarkeria kasuak gutxitzeko babes mekanismo gehiago garatu beharko liratezke, baita genero indarkeriaren alorra sare sozialetan arautzen duen lege bat garatu ere.

Lege honetan, pertsona babestuaren ohorea eta intimitatea modu berezian jaso beharko litzateke, batzuetan norbanakoari lotutako eskubideak izanik, berebiziko garrantzia ematen ez zaion gaia baita. Ildo beretik, kezkarria da oraindik pentsatzea aurrerapen teknologikoen genero-eraginik ez dutela, gaur egun, genero indarkeria kasu anitz sare sozialen bidez ematen baitira. Galiziak esaterako, 15/2021eko Legearekin

genero indarkeria digitala sartzen du matxismoaren aurkako legedian¹²⁸, eta hori aurrerapen handia da, EAEk ere, antzekoa garatu beharko lukeena.

4.- Laugarrenik, hauen erabilera seguru eta egokia bermatzeko asmoz dagoen araudia ugaria den arren, gaur egun sare sozialen bidez genero indarkeria kasu ugari ematen dira eta horietako askok nerabe eta gazteen artean ohikotzat jotzen dituzten egoerak dira. Nire ikuspuntutik, arazo honen oinarria, txikitatik genero indarkeriari buruz jasotzen dugun hezkuntzan dago, hots, onartezina da txikitatik genero indarkeriari buruz jasotzen dugun informazio urria. Gabezi horrek, hots, genero indarkeriari buruzko hezkuntza egoki ezak, denborarekin genero indarkeria eragin dezaketen jokaerak areagotu ditzake, eta beraz genero indarkeria izaera duten kasuak normaltzat hartu. Hala ere, hezkuntza ez ezik, gizartean indarrean dauden baloreek ere eragin handia dute genero indarkeria kasuetan.

5.- Bosgarrenik eta azkenik, pertsonalki Sestaoko ertzain-etxean, genero indarkeria eta etxeko indarkeria atalean praktiketan egon naizenez, aukera izan dut bereziki genero indarkeria sufritzen duten emakumeekin nolabaiteko harremana izateko. Ildo beretik, genero indarkeria sufritzen duten biktimak osoki eta modu osatuagoan babesten duten legeak atera behar direla pentsatu arren, beharrezkoa da ahalegin sozial bateratua egitea, hots, beharrezkoa da txikitatik jasotzen diren baloreen aldaketa ematea.

Izan ere, ukaezina da genero indarkeria egunerokotasunean ematen den egitatea dela, eta genero indarkeriaren biktimak gero eta gehiago direla. Hori dela eta, azken urteetan emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeari buruz pausu handiak eman diren arren, nabaria da oraindik asko dugula egiteko asko baitira oraindik genero indarkeria sufritzen duten emakumeak eta euren bikoteengandik erailak direnak, eta hori onartezina da.

128 NOTICIAS JURÍDICAS: *Ley 15/2015: Galicia incluye la violencia de género digital en su legislación contra el machismo*, Noticias Jurídicas webgunea, 2021

VII. BIBLIOGRAFIA

Monografiak

- AGUDO FERNÁNDEZ, Enrique, VALLEJO JAÉN, Manuel eta PERRINO PÉREZ, Ángel Luis: *La víctima en la justicia penal: el estatuto jurídico de la víctima del delito*, Dykinson, Madril, 2016: [la victima en la justicia penal | Buscar | Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea \(worldcat.org\)](#)
- BERDINTASUN MINISTERIOA: *Guía de los derechos de las mujeres víctimas de violencia de género*, 2021: [guiaderechos2.pdf \(igualdad.gob.es\)](#)
- BERDUGO GÓMEZ DE LA TORRE, Ignacio: *Honor y libertad de expresión*, Technos Argitaletxea, Madril, 1987
- CABEZUELO ARENAS, Ana Laura: *Derecho a la Intimidad*, Tirant to Blanch, Valentzia, 1998
- DE VERDA Y BEAMONTE, José Ramón: *La Protección del Derecho a la Intimidad frente a las Indiscreciones Literarias*, Thomson-Aranzadi S.A, Cizur Menor, 2012
- DÍEZ-PICAZO, Luis María: *Sistema de Derechos Fundamentales*, Tirant Lo Blanch, Valentzia, 2021
- EMAKUNDE: *Berdintasunari eta indarkeriari buruzko oinarritzko kontzeptuak*, Instituto Vasco de la Mujer, 2020
- GARCÍA GARCÍA, Clemente eta GARCÍA GOMEZ, Andres: *Colisión entre el derecho a la intimidad y el derecho a la información y opinión, Su protección jurídica*. Imprenta Belmar S.A, Murtzia, 1994
- GARCÍA SAN MIGUEL, Luis: *Estudios sobre el derecho a la intimidad*, Tecnos, Madril, 1992: [El Derecho a la Intimidad - Dialnet \(unirioja.es\)](#)
- GRIMALT SERVERA: *La protección Civil de los Derechos al Honor, a la Intimidad y a la Propia Imagen*, Iustel, Madril, 2007
- HERRERO TEJEDOR, Fernando: *Honor, intimidad y propia imagen*. Colex, Madril, 1990
- INSTITUTO ANDALUZ DE LA MUJER: *¿Qué se entiende por violencia domestica?*, 2022: [1.Violencia de género \(juntadeandalucia.es\): ¿Qué se entiende por Violencia Doméstica? \(juntadeandalucia.es\)](#)

- LACRUZ BERDEJO, José Luis: *Elementos de derecho civil. Tomo I: Parte general. Vol.2: Personas*, Dykinson, Madril, 2010: [E Libro \(oclc.org\)](#)
- LORENTE ACOSTA, Miguel: *Mi marido me pega lo normal. Agresión a la mujer: realidades y mitos*, Crítica, Bartzelona, 2001
- PERIS CERVERA, Rosa Maria: *Patriarcado, ¿Organización ya superada? ¿Origen de la violencia machista?*, Crítica, 2009: [Violencia de género, problema social \(revista-critica.com\)](#)
- PORRES GARCÍA, Izaskun eta ODRIOZOLA GURRUCHAGA, Miren: *Derecho a la intimidad de las víctimas de delitos de violencia de género. Derecho al anonimato de las víctimas*, Emakunde, Instituto Vasco de la Mujer, Informes y Estudios, Vitoria-Gasteiz, 2018: [informe_41_derecho_intimidad_victimas_vg.pdf \(euskadi.eus\)](#)
- PORRES GARCÍA, Izaskun eta ODRIOZOLA GURRUCHAGA, Miren: *Derecho a la intimidad de víctimas de delitos de violencia de género. Derecho al anonimato de las víctimas. Abstract*, Estudio propuesto por el área de Eliminación de Violencia contra las Mujeres, Emakunde: [*Microsoft Word - abstract EMAKUNDE. DERECHO A LA INTIMIDAD DE LAS VÍCTIMAS DE VIOLENCIA DE GÉNERO..docx \(cop.es\)](#)
- REBOLLO DELGADO, Lucrecio: *El derecho fundamental a la intimidad. 2.* Argitalpena, Dykinson, Madril, 2005: [Editorial Dykinson - El derecho fundamental a la intimidad | Rebollo Delgado, Lucrecio | 84-9772-698-7](#)
- RUIZ REPULLO, Carmen: *Voces tras los datos: Una mirada cualitativa a la violencia de género en adolescentes*, Instituto Andaluz de la Mujer, Sevilla, 2016: [VOCES TRAS LOS DATOS: UNA MIRADA CUALITATIVA A LA VIOLENCIA DE GENERO EN ADOLESCENTES \(observatoriodelainfancia.es\)](#)
- SANDOVAL HURTADO, Carmen Adelaida: *Violencia de Género. Visión desde el ordenamiento jurídico español y boliviano*, publikatuko gabeko tesia, Valentziako Unibertsitatea, 2010: [Violencia de género: visión desde el ordenamiento jurídico español y boliviano - Dialnet \(unirioja.es\)](#)
- SIMÓN CASTELLANO, Pere: *El reconocimiento del derecho al olvido digital en España y en la UE: efectos tras la sentencia del TJUE de mayo de 2014*, Bosh, Bartzelona, 2015

- VICENTE, Susana: *Una aproximación a la Violencia de Género. Derecho a una vida libre sin violencia*, Crítica, 2009: [Violencia de género, problema social \(revista-critica.com\)](http://www.revista-critica.com)

Artikuluak

- ARCE JANÁRIZ, Alberto: “El derecho a la intimidad: De Samuel D. Warren y Louis D. Brandeis”, *Revista española de derecho constitucional*, 1996, 47. Zenbakiduna, 367-373. orrk.: [El derecho a la intimidad: De Samuel D. Warren y louis D. Brandeis - Dialnet \(unirioja.es\)](http://www.unirioja.es)

-CEBALLOS HERNÁNDEZ, Leonor: Erreseina, “Miguel Lorente Acosta.Mi marido me pega lo normal. Agresión a la mujer: realidades y mitos”, *Clepsydra:Revista de Estudios de Género y Teoría Feminista*, 2001, 1.zenbakiduna, 164-167. orrk.: [Miguel Lorente Acosta. «Mi marido me pega lo normal». Agresión a la mujer: realidades y mitos. Barcelona, Crítica, 2001 - Dialnet \(unirioja.es\)](http://www.unirioja.es)

-CODES CALATRAVA, José María: “Comentario de la Sentencia del Tribunal Europeo de Derechos Humanos en el Caso Von Hannover contra Alemania: ¿Una esperanza para la intimidad de los famosos”, *Asamblea: Revista parlamentaria de la Asamblea de Madrid*, 2010, 23. Zenbakiduna, 261-276. orrk.: [Comentario a la Sentencia del Tribunal Europeo de Derechos Humanos en el Caso Von Hannover contra Alemania: ¿una esperanza para la intimidad de los famosos? - Dialnet \(unirioja.es\)](http://www.unirioja.es)

- DE LAS HERAS VIVES, Luis: “Reflexiones sobre el bien jurídico intimidad a propósito de la intimidad de las victimas del delito. Comentario a la STS núm. 661/2016, de 10 de noviembre”, *Revista Boliviana de Derecho*, 2017, 24. Zenbakiduna, 446-473. orrk.: [Reflexiones sobre el bien jurídico intimidad a propósito de la intimidad de las victimas del delito. Comentario a la STS núm. 661/2016, de 10 de noviembre \(roj: STS 4836/2016\) - Dialnet \(unirioja.es\)](http://www.unirioja.es)

- DE VERDA Y BEAMONTE, José Ramón: “Los Derechos al honor, a la intimidad y a la propia imagen como límites del ejercicio de los derechos fundamentales de información y expresión: ¿Una nueva sensibilidad de los tribunales? ”, *Derecho privado y Constitución*, 2015, 29. Zenbakiduna, 389-436. orrk.: [Los derechos al honor, a la intimidad y a la propia imagen como límites del ejercicio de los derechos fundamentales](http://www.unirioja.es)

[de información y de expresión: ¿una nueva sensibilidad de los tribunales? - Dialnet \(unirioja.es\)](#)

- DE VERDA Y BEAMONTE, José Ramón: “Los Derechos fundamentales de la personalidad (al honor, a la intimidad y a la propia imagen) como categoría unitaria”, *Revista Boliviana de Derecho*, 2017, 23. Zenbakiduna, 54-111. orrk.: [Los derechos fundamentales de la personalidad \(al honor, a la intimidad y a la propia imagen\) como categoría unitaria. \(redib.org\)](#)

-DE VERDA Y BEAMONTE, José Ramón: “Libertad de información y derecho a la intimidad de las víctimas. Comentario de la STS (Pleno) núm. 91/2017, de 15 de febrero”, *Actualidad jurídica iberoamericana*, 2017, 6. Zenbakiduna, 278-291. orrk.: [Libedigitalrtad de información y derecho a la intimidad de las víctimas: comentario de la sts \(pleno\) núm. 91/2017, de 15 de febrero - Dialnet \(unirioja.es\)](#)

- GALLARDO RODRÍGUEZ, Almudena: “Sentencia del Tribunal Supremo 661/2016 (Sala de lo Civil, Sección 1.ª), de 10 de noviembre de 2016 [ROJ STS 4836/2016]”, *AIS: Revista europea e iberoamericana de pensamiento y análisis de derecho, ciencia política y criminología*, Salamanca, 2017, 1. Zenbakiduna, 317-319. orrk.: [Sentencia del Tribunal Supremo 661/2016 \(Sala de lo Civil, Sección 1.ª\), de 10 de noviembre de 2016 \[ROJ STS 4836/2016\]: derecho a la intimidad y a la propia imagen de la víctima de violencia de género en los medios de comunicación - Dialnet \(unirioja.es\)](#)

- GUTIERREZ DE PIÑERES BOTERO, Carolina, CORONEL, Elisa eta PÉREZ Carlos Andrés: “Revisión teórica del concepto de victimización secundaria”, *Liberabit*, 2009, 1. Zenbakiduna, 49-58. orrk.: [Revisión teórica del concepto de victimización secundaria - Dialnet \(unirioja.es\)](#)

- LOUSADA AROCHENA, José Fernando: “El derecho fundamental a vivir sin violencia de género”, *Revista EUG*, 2015, 48-2014. zenbakiduna, 31-48. orrk.: [El derecho fundamental a vivir sin violencia de género | Anales de la Cátedra Francisco Suárez \(ugr.es\)](#)

- MARTÍNEZ DE PISÓN, José: “El derecho a la intimidad: de la configuración inicial a los últimos desarrollos en la jurisprudencia constitucional”, *Anuario de Filosofía de Derecho*, 2016, 32. Zenbakiduna, 409-430. orrk.: [El derecho a la intimidad: de la configuración inicial a los últimos desarrollos de la jurisprudencia constitucional - Dialnet \(unirioja.es\)](#)

- MARTÍNEZ OTERO, Juan María: “La difusión de sexting sin consentimiento del protagonista: un análisis jurídico”, *Derecom*, 2013, 12. Zenbakiduna, 1-16. orrk.: [La difusión de sexting sin consentimiento del protagonista: un análisis jurídico - Dialnet \(unirioja.es\)](#)
- NOTICIAS JURÍDICAS: “Ley 15/2015: Galicia incluye la violencia de género digital en su legislación contra el machismo”, Noticias Jurídicas webgunea, 2021, [Home · Noticias Jurídicas \(juridicas.com\): Ley 15/2021: Galicia incluye la violencia de género digital en su legislación contra el machismo · Noticias Jurídicas \(juridicas.com\)](#)
- PEINADO BLÁZQUEZ, María Dolores: “La Directiva 2012/29/UE ¿Un paso adelante en materia de protección a las víctimas en la Unión Europea?” *Revista de Derecho Comunitario Europeo*, 2013, 43. Zenbakiduna, 897-934. orrk.: [Dialnet Métricas - Documento La Directiva 2012/29/UE. ¿Un paso adelante en materia de protección a las víctimas en la Unión Europea? \(unirioja.es\)](#)
- RUBIO-GARAY, Fernando; CARRASCO, Miguel Ángel; AMOR, Pedro Javier; LÓPEZ-GONZÁLEZ, María Angeles: “Factores asociados a la violencia en el noviazgo entre adolescentes: una revisión crítica” *Anuario de psicología jurídica*, 2015, 15. Zenbakiduna, 47-56. orrk.: [Redalyc.Factores asociados a la violencia en el noviazgo entre adolescentes: una revisión crítica](#)
- ROMERO COLOMA, Aurelia María: “El honor y libertad de expresión de la Constitución Española de 1978 y en la doctrina del Tribunal Constitucional”, *La Ley: Revista jurídica española de doctrina, jurisprudencia y bibliografía*, 1994, 2. Zenbakiduna, 951-960. orrk.: [El honor y la libertad de expresión en la Constitución española de 1978 y en la doctrina del Tribunal Constitucional - Dialnet \(unirioja.es\)](#)
- SERRA CRISTÓBAL, Rosario: “Los derechos de la víctima en el proceso VS. Medios de comunicación. Un ejemplo de la información sobre delitos de la violencia contra la mujer”, *Revista española de derecho constitucional*, 2015, 103. Zenbakiduna, 199-230. orrk.: [Los derechos de la víctima en el proceso penal vs. medios de comunicación. Especial referencia a las víctimas de violencia por motivos de género - Dialnet \(unirioja.es\)](#)
- TRIANO LÓPEZ, Patricia eta TRIANO LÓPEZ, Manuel: “Análisis del tratamiento por parte de la prensa española de las noticias sobre mujeres asesinadas por sus (ex) parejas sentimentales”, *E-Aesla*, 2016, 2. Zenbakiduna, 169-178. orrk.: [Análisis del](#)

[tratamiento por parte de la prensa española de las noticias sobre mujeres asesinadas por sus \(ex\) parejas sentimentales - Dialnet \(unirioja.es\)](#)

Obra kolektiboak

- ALBERDI, Inés: “Temas y desafíos de la igualdad entre los géneros. El liderazgo de las Naciones Unidas”, *Feminismo, género e igualdad*, EGRAF S.A, Madril, 2011, 263-280.orrk.: [Temas y desafíos de la igualdad entre los géneros: el liderazgo de las Naciones Unidas - Dialnet \(unirioja.es\)](#)

- ATIENZA NAVARRO, María Luisa: “Algunas cuestiones acerca de la responsabilidad civil por los daños al honor, a la intimidad y a la propia imagen”, *Veinticinco años de la aplicación de la Ley Orgánica 1/1982, de 5 de mayo, de protección civil del derecho al honor, a la intimidad personal y familiar y a la propia imagen*, Thomson-Aranzadi S.A, Cizur Menor, 2007, 281-301.orrk.

- GÓMEZ, Carmen eta VALVERDE, Elena: “Protección de datos de las víctimas. Su intimidad antes de la denuncia y durante todo el procedimiento judicial”, *Guía práctica para el asesoramiento legal a víctimas de violencia de género*, Fundación Fernando Pombo, 2015, 1-320 orrk.: [Guia_Fund_Pombo.pdf \(igualdad.gob.es\)](#)

- NAVARRO MOLINER, Rosa: “El derecho al honor y su conflicto con la libertad de expresión y el derecho a la información”, *Veinticinco años de la aplicación de la Ley Orgánica 1/1982, de 5 de mayo, de protección civil del derecho al honor, a la intimidad personal y familiar y a la propia imagen*, Thomson-Aranzadi S.A, Cizur Menor, 2007, 21-53.orrk.

- HERNÁNDEZ GUERRERO, Francisco J.: “Las conductas de acoso por medio de las tecnologías de la información y de las comunicaciones”, *Derecho y redes sociales*, Thomson-Aranzadi S.A, Cizur Menor, 2010, 263-270. orrk.

- SERRA CRISTÓBAL, Rosario: “Intimidad de la víctima en el proceso. Un ejemplo en la mujer víctima de la trata”, *La protección jurídica de la intimidad*, Iustel, Madril, 2010, 241-252. orrk.

-TORRES ALBERO, Cristobal (zuz.), ROBLES, José Manuel eta DE MARCO, Stefano: “Aurkezpena”, *El ciberacoso como forma de ejercer la violencia de género en la juventud: Un riesgo en la sociedad de la información y del conocimiento*, Centro de

publicaciones, Ministerio de Sanidad, Servicios Sociales e igualdad, Madril, 2013,
4.orr.: [Libro_18_Ciberacoso.pdf \(igualdad.gob.es\)](#)

- QUESADA AGUAYO, María S.: “La violencia de género y el ciberacoso en las redes sociales: análisis y herramientas de la detección”, *Ciberacoso y violencia de género en las redes sociales*, Servicio de publicaciones, Universidad Internacional de Andalucía, 2015, 149-155orrk: [Ciberacoso y violencia de género en redes sociales: análisis y herramientas de prevención \(unia.es\)](#)

Iturri jurisprudenziala

Probintzia Auzitegiko epaiak:

Kordobako PAko 120/2004 ekainaren 8ko epaia: [SAP Córdoba 120/2004, 8 de Junio de 2004 - Jurisprudencia - VLEX 51931762](#)

Auzitegi Goreneko epaiak:

AGko 1987ko martxoaren 23ko epaia: [STS, 23 de Marzo de 1987 - Jurisprudencia - VLEX 206633](#)

AGko 861/97 urriaren 9ko epaia: [STS 861/97, 9 de Octubre de 1997 - Jurisprudencia - VLEX 17743853](#)

AGko 521/2011 uztailaren 5eko epaia: [STS 521/2011, 5 de Julio de 2011 - Jurisprudencia - VLEX 308596774](#)

AGko 62/2013 otsailaren 5eko epaia: [STS 62/2013, 5 de Febrero de 2013 - Jurisprudencia - VLEX 426759482](#)

AGko 2013ko otsailaren 18ko epaia: [STS, 18 de Febrero de 2013 - Jurisprudencia - VLEX 425694594](#)

AGko 661/2016 azaroaren 10eko epaia: [STS 661/2016, 10 de Noviembre de 2016 - Jurisprudencia - VLEX 653443081](#)

AGko 91/2017 otsailaren 15eko epaia: [STS 91/2017, 15 de Febrero de 2017 - Jurisprudencia - VLEX 667177509](#)

Konstituzio Auzitegiko epaiak:

KAko 104/1986 uztailaren 17ko epaia: [Sistema HJ - Resolución: SENTENCIA 104/1986 \(tribunalconstitucional.es\)](#)

KAko 168/1986 abenduaren 22ko epaia: [Sistema HJ - Resolución: SENTENCIA 168/1986 \(tribunalconstitucional.es\)](#)

KAko 170/1987 urriaren 30eko epaia: [STC 170/1987, 30 de Octubre de 1987 - Jurisprudencia - VLEX 15033793](#)

KAko 231/1988 abenduaren 2ko epaia: [Sistema HJ - Resolución: SENTENCIA 231/1988 \(tribunalconstitucional.es\)](#)

KAko 180/1999 urriaren 11ko epaia: [STC 180/1999, 11 de Octubre de 1999 - Jurisprudencia - VLEX 147573](#)

KAko 297/2000 abenduaren 11ko epaia: [Sistema HJ - Resolución: SENTENCIA 297/2000 \(tribunalconstitucional.es\)](#)

KAko 49/2001 otsailaren 26ko epaia: [Sistema HJ - Resolución: SENTENCIA 49/2001 \(tribunalconstitucional.es\)](#)

KAko 204/2001 urriaren 15eko epaia: [Sistema HJ - Resolución: SENTENCIA 204/2001 \(tribunalconstitucional.es\)](#)

KAko 52/2002 otsailaren 25eko epaia: [Sistema HJ - Resolución: SENTENCIA 52/2002 \(tribunalconstitucional.es\)](#)

KAko 185/2002 urriaren 14ko epaia: [Sistema HJ - Resolución: SENTENCIA 185/2002 \(tribunalconstitucional.es\)](#)

KAko 127/2003 ekainaren 30eko epaia: [Sistema HJ - Resolución: SENTENCIA 127/2003 \(tribunalconstitucional.es\)](#)

KAko 12/2012 urtarrilaren 30eko epaia: [Sistema HJ - Resolución: SENTENCIA 12/2012 \(tribunalconstitucional.es\)](#)

KAko 216/2013 abenduaren 19ko epaia: [Sistema HJ - Resolución: SENTENCIA 216/2013 \(tribunalconstitucional.es\)](#)

KAko 65/2015 apirilaren 13ko epaia: [Sistema HJ - Resolución: SENTENCIA 65/2015 \(tribunalconstitucional.es\)](#)

KAko 25/2019 otsailaren 25eko epaia: [Sistema HJ - Resolución: SENTENCIA 25/2019 \(tribunalconstitucional.es\)](#)

Legedia

Espainia. Prozedura Kriminalaren Legea [Internet]. *Gaceta de Madrid*, 260. zk. 1882Ko irailaren 14a. Hemen eskuragarri: [https://www.boe.es/eli/es/rd/1882/09/14/\(1\)/con](https://www.boe.es/eli/es/rd/1882/09/14/(1)/con)

Espainia. Espainiako Konstituzioa [Internet]. *Estatuko Aldizkari Orokorra*, 311.zk, 1978ko abenduaren 29a. (29313 a 29424 orr.). Hemen eskuragarri: [https://www.boe.es/eli/es/c/1978/12/27/\(1\)](https://www.boe.es/eli/es/c/1978/12/27/(1))

Espainia. 1982ko maiatzaren 5eko, Ohore, Intimitate, eta Norberaren Irudiaren Babes Zibilari buruzko 1/1982 Lege Organikoa [Internet]. *Estatuko Aldizkari Orokorra*, 115. zk. 1982ko maiatzaren 14a. (12546-12548 orr.). Hemen eskuragarri: <https://www.boe.es/eli/es/lo/1982/05/05/1>

Espainia. Abenduaren 28ko 1/2004ko Genero Indarkeriaren Aurka Babes Osoa emateko neurriei buruzko Lege Organikoa [Internet]. *Estatuko Aldizkari Orokorra*, 313 zk. Hemen eskuragarri: <https://www.boe.es/eli/es/lo/2004/12/28/1/con>

Espainia. 2015eko uztailaren 23ko Konstituzio Auzitegiaren Osoko Bilkuraren erabakia, jurisdikzio ebazpenak argitaratzean nortasun pertsonaleko datuak baztertzea erregulatzen duena [Internet]. *Estatuko Aldizkari Orokorra*, 178.zk. 2015Eko uztailaren 27koa. Hemen eskuragarri: [Acuerdo de 23 de julio de 2015, del Pleno del Tribunal Constitucional, por el que se regula la exclusión de los datos de identidad personal en la publicación de las resoluciones jurisdiccionales. \(boe.es\)](#)

Euskal Autonomia Erkidegoa. 2005Eko otsailaren 18ko 4/2005eko Legea, Emakumeen eta Gizonen berdintasunari buruzkoa. Gerora, 2012ko otsailaren 16ko 3/2012ko Legeak Emakumeen eta Gizonen berdintasunari buruzko Legea eta Emakunde- Emakumearen Euskal Erakunde sortzeko Legea, aldatu zituen [Internet]. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 42. zk. Hemen eskuragarri: [4209&B.O.P.V. N.¼ 42 \(euskadi.eus\)](#)

Euskal Autonomia Erkidegoa. 2011Ko martxoaren 28ko 29/2011ko Dekretua, Genero Indarkeriaren biktimei laguntzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean daude koordinazio mekanismoei buruzkoa [Internet]. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 58. zk. Hemen eskuragarri: [decreto.29.2011.pdf \(euskadi.eus\)](#)

Nazio Batuen Erakundea. Emakumearen aurkako Indarkeria Ezabatzeari buruzko Adierazpena [Internet]. Batzar Nagusiaren 48/104 ebazpena, 1993ko abenduaren 20koa. Hemen eskuragarri: [ACNUDH | Declaración sobre la eliminación de la violencia contra la mujer \(ohchr.org\)](#)

Nazio Batuen Erakundea. 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala. Batzar Nagusiaren 217A(III) Ebazpena, 1948ko abenduaren 10ekoa [Internet]. Hemen eskuragarri: [La Declaración Universal de Derechos Humanos | Naciones Unidas](#)

Nazio Batuen Erakundea. Laugarren Mundu Konferenziaren txostena [Internet]. 1995eko irailaren 4tik 15era [Internet]. Hemen eskuragarri: [A/CONF.177/20/Rev.1 - S - A/CONF.177/20/Rev.1 -Desktop \(undocs.org\)](#)

Europar Batasuna. Azaroaren 4ko 1950eko Erromako Hitzarmena, Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak babesteari buruzkoa [Internet]. Hemen eskuragarri: [Microsoft Word - Convenio europeo prot dchos fundamentales.doc \(usal.es\)](#)

Europar Batasuna. Europako Kontseiluaren Hitzarmenaren berrespen agiria, Emakumearen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren prebentzio eta borrokari buruzkoa, Istanbulen, 2001eko maiatzaren 11a [Internet] Hemen eskuragarri: [BOE.es - BOE-A-2014-5947 Instrumento de ratificación del Convenio del Consejo de Europa sobre prevención y lucha contra la violencia contra la mujer y la violencia doméstica, hecho en Estambul el 11 de mayo de 2011.](#)

Europar Batasuna. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012ko urriaren 25eko 2012/29/EB Zuzentaraua, Delituen Biktimen eskubideei, laguntzari eta babesari buruzko gutxieneko arauak ezartzen dituen eta Kontseiluaren 2001/220/JAI esparru erabakia ordezkatzeko duena, Biktimaren Estatutuari dagokiona [Internet]. *Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala*, 315 zk. Hemen eskuragarri: [BOE.es - DOUE-L-2012-82192 Directiva 2012/29/UE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 25 de octubre de 2012, por la que se establecen normas mínimas sobre los derechos, el apoyo y la protección de las víctimas de delitos, y por la que se sustituye la Decisión marco 2001/220/JAI del Consejo.](#)

VIII. ERANSKINAK

1. ERANSKINA: GENERO INDARKERIA BIKTIMAREN IDENTIFIKAZIOA *EL MUNDO* ETA *EL PAÍS* EGUNKARIETAN

Tipo de identif.	Periódico analizado								
	<i>Huelva Información</i>			<i>Diario El País</i>			<i>Diario El Mundo</i>		
	<i>n</i>	<i>% identif.</i>	<i>% total</i>	<i>n</i>	<i>% identif.</i>	<i>% total</i>	<i>n</i>	<i>% identif.</i>	<i>% total</i>
Nombre	5	10,6%	5,3%	7	12,5%	7,4%	5	8,9%	5,3%
Nombre y apellidos	4	8,5%	4,3%	11	19,6%	11,7%	10	17,9%	10,6%
Nombre y 1 ^{er} apellido	8	17%	8,5%	13	23,2%	13,8%	9	16,1%	9,6%
Nombre y siglas	12	25,5%	12,8%	14	25%	14,9%	13	23,2%	13,8%
Solamente siglas	18	38,3%	19,1%	11	19,6%	11,7%	19	33,9%	20,2%
Sin identificar	47	-----	50%	38	-----	40,4%	38	-----	40,4%
TOTAL (válidos y sin identif.)	94	-----	100%	94	-----	100%	94	-----	100%

Tabla 1. Identificación de la víctima

2. ERANSKINA: GENERO INDARKERIARI LOTUTAKO KONTZEPTUAK

A) Genero arrazoiengatiko indarkeria: Sexua, indentitatea edo genero-adierazpena dela eta, pertsona baten aurkako indarkeria oro, edo sexu konkretu bateko pertsonen aurkako indarkeria, genero arrazoiengatiko indarkeriatzat hartuko da¹²⁹.

B) Emakumearen aurkako indarkeria: Emakumeari kalte fisiko, sexual edo psikologikoa eragiten dion edo eragin diezaiokeen genero indarkeriagatiko egintza oro izango da (mehatxuak, arbitrarioki askatasunaz gabetzea...) espazio publiko zein pribatuetan eman daitekeena¹³⁰. Subjektu pasiboa beti emakumea izango da, beraz, emakumearen kontrako indarkeria zehatza da, emakumeekiko harremanetan gizonen nagusitasuna gailentzen duena (desberdintasun egoera sortuz). Hari beretik, beharrezkoa da, gizon eta emakumearen artean harreman afektiboa egotea, 1/2004ko Lege Organikoak adierazi bezala¹³¹. Hala ere, ikerketa lan honetan, genero indarkeria terminoa erabiliko dugu, emakumearen aurkako indarkeriaren sinonimotzat, eta beraz, orain azaldutako terminoa (emakumearen aurkako indarkeria) barnebiltzen dituen egoerak, zeinetan emakumea beti subjektu pasiboa den genero indarkeria kasua kontsideratuko da.

D) Etxeko indarkeria: Familiaren esparruan eraso fisikoak, psikikoak eta psikologikoak gertatzen direnean etxeko indarkeria kasu baten aurrean egongo gara. Beraz hemen bai biktima bai erasotzailea ez da zertan emakumea izan behar, gizona ere izan daiteke, adibidez, adingabea den alaba bat bere gurasoei kolpeak, bultzadak... ematen dizkionean¹³². Ildo beretik, erasoak beti familiakideen artean izan behar dira eta elkarbizitza egotea beharrezkoa da, salbu sentimenduzko harremana mantendu duten bikoteen kasua (kasu hauetan elkarbizitza ez da derrigorrezkoa). Hori dela eta, etxebizitza batean lanean dagoen barne langilearenganako erasoak ez liratezke etxeko indarkeriaren barne sartuko, ez baita familia nukleoaren kide. Era berean, ZKko 173.2 artikulua dago oinarri juridikoa, eta beraz hemendik kanpo egongo litzateke, ZKko 153. artikuluko lehenengo zatia¹³³.

129 2012/29/EB Zuzentaraua (Hitzaurreko 17. paragrafoa).

130 Nazio Batuak. Emakumearen aurkako Indarkeria Ezabatzeari buruzko Adierazpena. Batzar Orokorraren 1994ko 48/104 ebazpena (1. artikulua).

131 Ikusi lan honen, 2.1.1 *Genero indarkeriaren kontzeptua eta erregulazioa atala*

132 Ikusi: [Etxeko indarkeria - Justizia Administrazioa Euskadin](#)

133 INSTITUTO ANDALUZ DE LA MUJER, *¿Qué se entiende por violencia domestica?*

E) Genero-indarkeriaren biktimak: Gizonak diren biktimen bikoteak eraildako emakumeak eta erail dituzten emakumeen senideak izango dira, genero indarkeriaren ondorioz kalte edo galeraren bat jasan badute¹³⁴. Ildo beretik, biktimaren adingabea den seme-alaba edo haren zaintzapean dagoena, indarkeria honen biktimak izango dira eta 1/2004 Lege Organikoak 5., 7., 14., 19.5., 61.2., 63., 65. eta 66. artikuluetan eta 17. xedapen gehigarrian jasotako eskubide guztiak aitortuko dizkie¹³⁵.

1) Biktima zuzena: Bere pertsona edo ondarearen gainean kalte edo galera jasan duen pertsona fisiko oro izango da, hots, lesio fisiko, psikikoak, kalte emozionalak... jasan duen emakumea.

2) Zeharkako biktima: Genero indarkeriaren ondorioz, zuzeneko biktima hil edo desagertzean, senitarte edo harekin afektibitate-lotura izan duten pertsonak jakin batzuk izango dira.

F) Biktimizazio prozesua: Pertsona baten ondasun juridikoak edo eskubideak kaltetu edo arriskuan jartzearen ondoriozko ekintzei deitzen zaie, pertsona hori biktima bihurtuz.

1) Biktimizazio primarioa: Pertsona batek, delitu egitate baten ondorioz, bere osotasun fisiko edo psikikoan kaltea jasotzen duenean ematen da¹³⁶, hau da, delituaren ondorioak bai zuzenean bai zeharka jasaten duen pertsonak, biktimaren izaera lortuko du.

2) Bigarren mailako biktimizazioa: Biktimizazio- eta errekupeazio-prozesuetan biktimekin harremana duten gizarte edo erakunde eragileen, hala nola, polizia-instantziak, komunikabideak... esku sartzearen ondorioz nahigabe eragindako kalteak dira¹³⁷.

Autore asko bat datoz adieraziz, biktimak, zigor-arloko sistema juridikoarekin dituen harremanek uzten dituen ondorio psikologiko, sozial, juridiko eta ekonomikoek eragiten dutela. Hau da, biktimak duen itxaropen eta errealitate instituzionalaren artean talka dago, eta horrek, delituzko egitateak eragin duen sufrimendu psikologiko eta fisikoari buruzko ulermena galtzea dakar. Adibidez, informazio ezak edo itxaropen

134 PORRES GARCÍA, Izaskun eta beste batzuk: *Derecho a la...*, zit., 45-52.orrk.

135 BERDINTASUN MINISTERIOA: *Guía de los...*, zit., 6.orr.

136 PORRES GARCÍA, Izaskun eta beste batzuk: *Derecho a la...*, zit.,47.orr.

137 PORRES GARCÍA, Izaskun eta beste batzuk: *Derecho a la...*, zit.,47.orr.

judzialen ez betetzea, emakumea berriz ere, prozesuaren biktima izatearen sentzazioa eragin dezake, bigarren mailako biktimizazioa sortuz¹³⁸.

G) Genero ziberindarkeria: Baliabide teknologiko edo Interneten bidez ematen den indarkeria mota da, zeinetan indarkeria psikologikoa nabarmentzen da indarkeria fisikoa ezabatuz. Beraz, bi ezaugarri daude emakumea, *online* bada ere, biktima bihurtzen dutenak; lehenengoa, interneten bidez emakumeari kalte egitea erraztasuna eta bigarrena, biktimarekin etengabeko harremana izatea¹³⁹.

138 GUTIERREZ DE PIÑERES BOTERO, Carolina eta beste batzuk: *Revisión teórica del concepto de victimización secundaria*, 2009, 2.orr.

139 HHAA: “*Violencia de género en la red para educación secundaria*”. Guía didáctica 13, Junta de Extremadura, Mérida, 2016, 5. orr.